



# EUSKALERÍAREN YAKINTZA

LITERATURA POPULAR DEL PAIS VASCO

POR

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE

*piel*



ESPASA-CALPE, S. A.



A.T.V. ~~4~~  
37

EUSKALÉRIAREN YAKINTZA  
(LITERATURA POPULAR DEL PAIS VASCO)

II





M. 2977

R 15

# EUSKALÉRIAREN YAKINTZA



(LITERATURA POPULAR DEL PAIS VASCO)

POR

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE

Doctor en Sagrada Teología

Miembro de número de la Real Academia Española

---

Bigáreu-liburua: Ipuin ta trakurgaiak  
Segundo tomo: Cuentos y leyendas

Con ilustraciones de

IGNACIO ZULOAGA, VALENTÍN ZUBIAURRE, J. GUINEA, P. TILLAC,  
JUCA, GOIKO, A. GARAVILLA, P. GARMENDIA, L. MOLTÓ, TXIKI,  
J. M. AJUBITA, R. ARÓSTEGUI Y M. URRETA

MADRID  
ESPASA-CALPE, S. A.

1942

Con censura eclesiástica

ES PROPIEDAD

Madrid, 1942

Published in Spain

Talleres ESPASA-CALPE, S. A., Ríos Rosas, 26. — MADRID

## OBRAS DEL MISMO AUTOR

### LITERARIAS

	Pesetas
DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCÉS.....	60,—
EUSKAL IZKINDEA. — Gramática de la Lengua Vasca, escrita en vascuence y traducida al castellano en columna contigua.....	12,50
MÉTODO PRÁCTICO PARA APRENDER EL VASCUENCE BIZKAINO Y GUIPUZCOANO (agotada).	
CLAVE DE TEMAS. — Complemento de la anterior (agotada).	
TŠIRISTADAK. — Colección de artículos fantásticos en vascuence bizkaino la mayor parte, algunos en guipuzcoano (agotada).	
BEIN DA BETIKO. — Leyenda en vascuence bizkaino (agotada).	
JESUSEN BIOTZAREN IĪA. — Colección de meditaciones para cada día del mes de junio, en bizkaino.....	2,—
EGUZKIA NORA. — Zarzuela bilingüe (agotada). La música está inédita.	0,50
COLONIA INGLESA. — Comedia bilingüe (agotada).	
«EUSKALZALE» (1897-1898-1899). — Revista dirigida y en gran parte redactada por el autor. Cada volumen (1).....	7,50
PRONTUARIO DE LA LENGUA VASCA.....	3,—
DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL, de bolsillo (agotada).	
ARDI GALDUA. — Novela.....	2,—
MORFOLOGÍA VASCA.....	15,—
PARTICULARIDADES DEL DIALECTO RONCALÉS.....	3,—
DISCURSO LEÍDO ANTE LA REAL ACADEMIA ESPAÑOLA EN RECEPCIÓN PÚBLICA.....	1,—
VERBO GUIPUZCOANO, apéndice de la Morfología Vasca.....	2,50
LAMIĪAK EUSKALEĪIAN.....	0,50
LA ESTIGMATIZADA DE KONNERSREUTH.....	0,50
LA EPÉNTESIS EN LA CONJUGACIÓN VASCA.....	0,50
AZZKERA EDO PETIRIBEĪKO INGURVETAKO MINTZAERA.....	2,50
OBSERVACIONES ACERCA DE LA «LANGUE BASQUE ET LANG. FINNOISES».	0,50
IGARKIZUNAK (Acertijos).....	1,—

(1) Solamente existe la del año 1897.

MENDIBURURIEN IDAZKIAK ETA IDAZTANKEA.....	1,—
NEOLOGISMOS FORMADOS A IMITACIÓN DE OTRAS LENGUAS.....	0,50
DEL ACENTO TÓNICO VASCO EN ALGUNOS DE SUS DIALECTOS.....	0,75
ACERCA DEL SANTORAL VASCO.....	1,—
GIPUZKERA OSOTUA.....	4,—
ADVERTENCIAS A LAS NOTAS SOBRE EL SANTORAL VASCO DEL SEÑOR ALTUBE.....	0,50
EVOLUCIÓN DE LA LENGUA VASCA.....	1,50
EUSKALERIAREN YAKINTZA. — Literatura popular del País Vasco (Pri- mer tomo).....	25,—

## MUSICALES

LA MÚSICA POPULAR VASCONGADA. — Conferencia acompañada de catorce preciosas melodías populares, armonizadas por el autor.....	5,—
KATALINTSO. — Zortziko a solo de tenor y piano.....	1,50
AHUSKY. — Romanza para tenor, palabras francesas de Jean Deuzcle (agotada).	
LA CUNA VACÍA (SEASKA UTSA). — Sobre una poesía de Selgas.....	1,50
RECORDARE. — Cántico religioso en latín.....	0,50
NOSTALGIA. — Zortziko para canto y piano.....	1,50
JESUSEN BIOTZARI OIUAKE. — Cánticos al Sagrado Corazón de Jesús... ..	2,—
ANDRA MARIARI OIUAKE. — Cánticos a Nuestra Señora.....	2,—
DONE JOSEPERI BEDERATZIUENA. — Novena a San José.....	1,—
VIZCAYTIK BIZKAIRA. — Zarzuela en tres actos.	
La música.....	16,—
El libreto.....	1,50
PASA DE CHIMBOS. — Zarzuela en dos actos. Libreto y música.....	5,—
SASI-ESKOLA. — Zarzuela infantil en un acto.....	1,—
EL ROSARIO EN VASCUENCE. — Un Padre nuestro, cinco Avemarías y un Gl. Patri.....	1,50
DOS LETANIAS AL SACRADO CORAZÓN DE JESÚS. — La una a tres voces, la otra a dos.....	1,50
ORTZURI. — Libreto de ópera dramática.....	1,50
URLO. — Opera vasca en tres actos, con textos vasco, español y alemán.	15,—
El libreto de esta obra.....	1,50
CANCIONERO POPULAR VASCO, CON ACOMPAÑAMIENTO. — Nueve cua- dernos.....	54,—
CANCIONERO POPULAR VASCO, SIN ACOMPAÑAMIENTO. — Once cuadernos.	55,—
APAIZ-OSTEGUNERAKO OTOITZA. — Oración para el jueves sacerdotal. Coro popular y tres estrofas con variantes para cantar a unísono...	1,50



# IPUIN TA IRAKURGAIAK

## IPUIN TA IRAKURGAIAK

### ITZAUREA

MUSA: I. Zertarikoak diran. — II. Besto efietakoen antzik otodaukaten. — III. Hans Sachs-en komedia bat gure *Zeruko beñiak* izendunaren antzekoa. — IV. Beron yatoría ta lankideen izenak. — V. Eñi-esakerak eta beste yakingai bitxiren batzuk.

## CUENTOS Y LEYENDAS

### PRÓLOGO

SUMARIO: I. Su clasificación. — II. Comparación con los de otros pueblos. — III. Una comedia de Hans Sachs (héroe de la ópera wagneriana *Die Meistersinger von Nürnberg*), semejante a nuestro cuento *Zeruko beñiak* (Noticias del Cielo). — IV. Su procedencia y nombres de los colaboradores. V. Fórmulas populares y algunos otros curiosos datos.



LENGO liburuaren itzaurean irakur dezakenez, beñogei ta amar urte igaro dira ipuin ta irakurgaiok biltzen asi nintzanetik. An, amargañen ofialdean, dautza yakingai auetatik asko ikasitako toki-izenak.

Berak argitaratzea otu zitzaidanean, beñeundik gora zirala ikusita, guziak eñeskan atera-beañean, mordoska edo sailletan ezagutaraztea egokiagotzat neukan. Uste au *Bole-*

I. Como puede leerse en el prólogo del primer tomo, han pasado ya cincuenta años desde que comencé a recoger estos cuentos y leyendas. Constan allí, en la página 10, los nombres de los lugares donde aprendí muchos de estos datos. Al concebir la idea de publicarlos, viendo que pasaban de doscientos, tuve por más propio darlos a conocer por grupos en vez de publicarlos uno tras otro. Ha confirmado esta idea algo que lei en el *Boletín de la Academia Es-*

tin de la Academia Española deritzan liburu batek nolabait indartzidan. Bere ori-artean, igazleneko yorailean, idazki luze ta mamintsu, izentzat *La clasificación de los cuentos populares* duena, irakuñi nuen. Beronen idazlea Californian Stanfordko Unibersidadeko irakasle Aurelio M. Espinosa da. Ona emen idazki onen itz mamintsuonak: «Eri-ipuina zertarikoak diran erakustea eri-yakintzadunen artean eztabada-ko asmakizun bat da; eta orainarte ezta oso erabakia izan.»

Eri-yakintzalari onek beronen lan eder luzean ipuinez dioskuna, geiena beintzat, gure ipuin ta ipuintxoai eztagokie. Gureak erazagoak ditugu; lautatik bi parte eragileak, beste asko asmutsuak, buru zofoztetatik irte-dakoak. Badira, geiegi ezaren, edozein eriren ipuin ta irakurgaien ondoan, aintzat artuak izateko eran, agertzekoak ere. Aipatu ditzagun bat edo beste: *Etegeren aurpegia*, *Etege-zofia*, *Ikazkinak yuregian*, *Ikazkina ta erioa*, *Evensugea*, *Iru burubide*, *Iru ikaslari*, *Kardulatz salatari*, *Legoia ta olagizonak*, *Otsa artzain*, *Peru Añazpe...* ta beste ez guti.

Ipuinak zertarikoak diran erakustea orainarte ezta erabakia izan irakuñiaren, gaiztasun ori beste erietakoai utziz, geron ipuin-irakurgaiak mordoskatzea buruak eman zidan. Bi eratara egin nituen: lenen-

pañola. Vi entre sus hojas, en abril de hace dos años, un escrito largo y substancioso, titulado «La clasificación de los cuentos populares». Su autor es Aurelio M. Espinosa, profesor de la Universidad de Stanford, en California. He aquí lo más significativo de este escrito: «La clasificación de los cuentos populares constituye un problema muy discutido entre los folkloristas, y no se ha resuelto todavía de una manera definitiva.»

Lo que este ilustre folklorista nos dice de los cuentos en su hermoso y largo trabajo no cuadra a nuestros cuentos y cuentecitos, por lo menos en general. Son más fáciles los nuestros; de ellos, la mitad son chistosos, ingeniosos otros muchos, procedentes de alegre chaveta. Hay también entre ellos, aunque no demasiados, números que pueden figurar dignamente al lado de cuentos y leyendas de cualquier pueblo. Mencionemos unos cuantos: «El rostro del rey», «Piojo real», «Los carboneros en palacio», «El carbonero y la muerte», «El dragón», «Tres consejos», «Tres estudiantes», «La cardencha espía», «El león y los ferrones», «El lobo pastor», «Pedro Arraizpe...» y otros, no pocos.

Aun a pesar de haber leído que aún no se ha determinado la clasificación de los cuentos populares, quise yo agrupar nuestros cuentos y leyendas, dejando esa dificultad para los de otros pueblos. Los clasifiqué



go, iru mordoskatan: giza-ipuinak, gizagainekoak eta gizapekoak. Bost auetan geroago: ipuin asmutsuak, ekanduzkoak, eri askotakoak, aldartetsuak eta irakurgaiak. Baina, batetik, ipuin bat irakurgai izaten noiz edo nola ta zertatik asten dan igartea gauza oso gaitza dalako; bestetik, eri askotakoak zeintzuk diran banan banan yakiteko, urteak bear izango nitukelako; eta gainera orain-arte, antxinakoenetatik asita, gizaldi ta mende ta eri askotako ipuinak, zertarikoak diran aipatu bage, agertuak izan diralako, ene ipuindi au beste guziak bezala argitaratzea erabaki dut: luzetxoena alkañen ondorik eta beren atzetxoan gainerakoak, laburtxoagoak.

II. Bigañen liburu au lenengoa bezalatsu egitea berezkoa da, beste eri zar batzuen yakingaiak, gure Eñ zar, Europako zañena dugun onen yakingaiakin ikertuz. Ofetarako, orain amalau urte-inguru, Alemanian amabi liburudun ipuin-talde eder baten yabe egin nintzan. *Die Märchen der Weltliteratur* (Munduko eriyakintzaren ipuinak) du talde onek izena. Madagaskar ta India ta China ta beste ufutiko eri batzuren ipuinak, astirik ezaz, irakurtzake utzita, Kaukaso ta Balkan ta Europa Goialdeko ipuin asko ikertu ditut. Eta Kankaso ofetako izkera batzuetan gure izkera zar onen itz ta esakera zenbait idoroten ditugunez, ipuin-artean ere, alkañen antza du-

de dos maneras: primero, en tres grupos: cuentos humanos, sobrehumanos y subhumanos; más tarde, en estos cinco: cuentos ingeniosos, morales, (propios) de varios pueblos, humorísticos y leyendas. Pero, por un lado, como es muy difícil acertar cuándo o cómo y de qué empieza un cuento a ser leyenda; por otro, como necesitaría años para saber uno por uno cuáles son los de otros pueblos; y, además, como los cuentos de muchas generaciones y siglos y pueblos, empezando por los más antiguos, han salido a luz sin hacer mención de su clasificación, he resuelto publicar esta mi colección de cuentos como todos los demás: los más largos, uno tras otro, y detrás de ellos, los restantes, los más cortos.

II. Es muy natural que este segundo libro se haga a semejanza del primero, comparando los datos de otros antiguos pueblos con los datos de este nuestro, que es el más antiguo de Europa. Para eso, adquirí en Alemania, hace unos catorce años, una colección de cuentos distribuidos en doce tomos. Su nombre es *Die Märchen der Weltliteratur* (Los cuentos de la Literatura mundial). Dejando sin leer, por falta de tiempo, los cuentos de Madagascar e India y China y de otros varios pueblos lejanos; he examinado muchos cuentos del Cáucaso, los Balcanes y Norte de Europa. Y así como hallamos en algunas lenguas del Cáucaso unas cuantas palabras y modismos de esta

tenak, bat edo bestetxo badira. Bai Balkanen eta Europa-goialdean ere. Iru ipuin auek dute Kaukasoko batzuen antza: gure *Alaba ta alaba-ordea* ta ango *Die Stieftochter* (alaba-ordea) 113-gaíen orialdean; gure *Alkartuak* eta ango *Der Tráumer* (ameslaria), 17-gaíenean; gure *Amezketaria ta Madridtaria* eta ango *Der Geschichte Dieb* (lapur burutsua) 260-gaíenean. Emen aipatu, geienak beintzat; ezta besterik egin nai, aipatu baizik. Ipuin bakoitzaren ondoren ikusiko duzu, irakurle, zertan daukaten antza gureak eta aienak.

Gure *Etege-Zoñia* ta Balkango *Der Teufel, der das Flohfell erkannte* (Zoñia-laria ezagutu zuen deabrua) antzekoak dira. Bai gure ipuin eder *Iru burubide* ta Europa-goialdeko *Die drei guten Ratschláge* (Iru burubide edo kontzeju onak) ere.

Ona emen beste efi zar batzuetako ipuinen aide diran gure batzuk: *As-toak ta lau astronomu-Atarrabio-Iru egia-Iru alper-Jesukristo eta San Pedro-Prefazio beñi bat-San Martinen estutasuna-Txeñenen adina*.

III. Berezikuntza bat egin nai izan dut, *Zeruko beñiak* ipuina izendun. Nire *Cancionero popular vasco*-ren mila ta bat abestietatik onentzat neuzkan bereun ta amáren artean, *Etzite yin* deritzaionari pianu-laguntasuna ezáñ nionean,

nuestra vieja lengua, también entre los cuentos hay algunos que tienen cierta semejanza. Lo mismo sucede en los Balcanes y Norte de Europa. A unos del Cáucaso se parecen estos cuentos nuestros: «La hija y la hijastra» y *Die Stieftochter* (la hijastra) de allí en la página 113; nuestro «Los asociados» y *Der Tráumer* (El soñador) de allí, en la página 17; nuestro «Amezketano y madrileño» y *Der Geschichte Dieb* (El hábil ladrón) de allí, en la 260.

Aquí no se hará otra cosa que citar. A continuación de cada cuento verás, lector, en qué se parecen nuestros cuentos y los de aquéllos. Son semejantes nuestro *Etege-zoñia* (El piojo real) y *Der Teufel, der das Flohfell erkannte* (El diablo que conoció la piel de la pulga), de los Balcanes. También nuestro hermoso cuento *Iru burubide* (Tres consejos) y *Die drei guten Ratschláge* (Los tres buenos consejos), del Norte de Europa.

He aquí unos cuantos nuestros que tienen cierto parentesco con otros de varios pueblos antiguos: «El burro y cuatro astrónomos», «Atarrabio», «Tres verdades», «Tres haraganes», «Jesucristo y San Pedro», «Un nuevo Prefacio», «Apuro de San Martín» y «La edad del diablo».

III. He querido hacer una excepción con el cuento denominado «Noticias del cielo». Cuando de las mil y una canciones de mi *Cancionero popular vasco* extraje doscientos diez de los más selectos para ponerles acompañamiento de piano, al llegar




gauza bitxi bat oartu nuen: Wagner-en *Die Meistersinger von Nürnberg*-en Hans Sachs-en *leit-motif* bat eta nik nire abestitxoari ezan niona antz-antzekoak izatea. Au ikusi muenan, itz auek gaineratu nituen musika-ostean:

Perdóneme Wagner el haber supuesto en la heroína de este poemita la misma devoción al juego de pelota como la que tenía el Príncipe de sus *Maestros Cantores*, Hans Sachs, al engolfarse en la lectura de la Biblia.

Cotéjese el tema musical de esta canción (Véase el acompañamiento en el número 8 del primer tomo del *Cancionero Selecto*)



con el de la célebre citada ópera:



Hans Sachs au etzan Wagneren buruan sortu. Nurembergko seme bat izan zan, zapataria ta gainera olerkari ugari ta entzutetsua ere bai. Leipzigen oraintsu argitaratua izan da *Hans Sachs ausgewählte dramatische Werke* izendun liburu bikoitz bat. Inauterietarakoak dira liburu-txo auetan argitaraturiko ogei ta bederatzi komediatxoak. Bigarren liburu-ko *Der fahrende Schüler im Paradies* ta gure ipuin *Zeruko beñiak* alkañen antz andia dute. Ipuin au argitaratzean irakurleak ikus dezake zerengatik uste izatekoa dan Hans Sachsen komedia eder au gure ipuin oñen ama edo beintzat amaso izatea.

Este Hans Sachs no nació en el cerebro de Wagner. Fué hijo de Nuremberg, zapatero y también poeta fecundo y famoso. Hace poco ha sido publicada una obrita suya en dos tomos denominada *Obras dramáticas escogidas de Hans Sachs*. Las veintinueve comedias que han salido a luz en estos libritos son para días de Carnaval. Son muy semejantes «El estudiante viajero en el Paraíso» y nuestro cuento «Noticias del Cielo». Al publicar este cuento podrá ver el lector por qué es creíble que esta hermosa comedia de Hans Sachs es madre o, por lo menos, ascendiente de ese nuestro cuento.

IV. Eskuetan dituzun 232 ipuin ta ipuintxo auk nondikoak diran yakin nai izatea berezko gauza da. Uste onen oinak esakunetxo zar bi auk dira: Laziotaien *suum cuique* ta euskaldunen *bakoitzari berca* (bizkaieraz *dabenari dabena*). Aipa ditzagun beraz ipuinok bizi diran edo bizi izan diran uri ta basaurien izenak. Bakoitzaren ondoko kopuru-gaiak zenbatgañenak diran darakuse. Leku-izen bakoitzaren bealdean lankide nortzuk izan ditudan ikusiko du irakurleak. Izen orien orde noiztanka X ageri da. X oiek ipuinaren lankide nor izan nuen ez-takidala darakus.

IV. Es cosa natural que se quiera saber el origen local de estos 232 cuentos y cuentecitos, y hasta el personal; es decir, el nombre del colaborador. Las bases de tal idea son estos dos viejos proverbios: el *suum cuique* de los latinos, y el *ea cada uno, lo suyo*, de los vascos (en bizkaino, *ai que ha lo que ha*). Mencionemos, por tanto, los nombres de las villas y villorrios en que viven, o han vivido, estos cuentos. Las cifras denotan el número de orden de cada uno de ellos. Al pie de cada nombre de lugar verá el lector quiénes han sido mis colaboradores. En vez de esos nombres, de vez en cuando aparece una X, para manifestar que no sé quién fué el colaborador de tal cuento.

- ARZKOA (AN.). — Petra Arotzarena, Abaufepea: 1, 78, 189. Zelestina Bidondo, idem: 150. Martin Arotzarena, Orbara: 22, 36, 168, 204. Maximino Iziz, Iriberri: 6, 133, 158, 166, 201. X: 123, 194.
- AINHOA (L.). — J. Etxarte, Dantxarinea: 40, 106.
- ALTSATSU (Alsasua) (AN.). — X: 210.
- AMAYUR (Maya) (AN.). — Juan Bautista Gorosufeta: 215.
- AMEZKETA (G.). — Mariana Ciriaco: 76, 174, 176, 195, 225.
- AMOREBIETA (B.). — Raimundo Ruiz: 60.
- ARAKIL (AN.). — Juan Bautista Alday, Arbisu: 98. X, Yabar: 71, 183.
- ARAMAVONA (B.). — N. Ajuria, Olaeta: 44, 57, 112. X: 25.
- ARATIA (B.). — Dominica Zalbidegoitia, Dima: 222. X, Igofe (Yufe): 69, 70, 196.
- AÑONA (G.). — Bernardina Iriondo: 41, 95.
- ATHAÑATZE (S.). — Fabien Hastoy: 11, 17, 19, 23, 50, 113. Johane Jaureguibery: 13, 46, 57, 84.
- HASPAÑEN (BN.). — Uxua: 53.
- ATAUN (G.). — Miguel Antonio Añuebañena: 39, 50, 101, 110, 127, 130, 190, 206, 214, 227.
- BARDOS (L.). — Gracieuse Bertherot: 29.
- BAZTAN (AN.). — Felipa Lastiri, Arizkun: 89, 103, 115, 170. Juan Cruz Goienetxe, Elbetea: 15, 35, 38, 42, 51, 114, 116, 187. X: 19, 123, 179, 223.
- BEDIA (B.). — Juan Martin Ibañetxe: 3.
- BERA (AN.). — Manuela Eñandorena: 152, 229. Josefa Rekalde: 220.
- BEÑIZ (B.). — Magdalena Bilbatua: 109.



- ELGOIBAR (B.). — Mariano Iriondo: 132, 231. Toribio Iriondo: 7, 120. Manuel Unanue: 211.
- ELOKIO (B.). — Benita Añegi: 125.
- ERMUA (B.). — X: 111.
- ERNANI (G.). — Maria Marca Ituaia: 11, 139.
- EKO (AN.). — X, Mezkiritz: 154.
- ESTERENZURI (AN.). — Maria Anpo: 173.
- EZPELETA (L.). — Jean Ipañagañe: 197.
- GARANDAIN (S.). — L'abbé Intxaustoy: 111, 217. Graciosa Lafamendi: 165.
- GARAY (B.). — Mercedes N.: 52, 171, 172.
- GARAZI (BN.). — X, Ahatsa: 82, 100, 134. Brigitta Bera, Donazahare: 218. X, Donazahare: 91, 131. Michel Gombault, Donazahare: 140, 142, 147.
- GOLDARATZ (AN.). — Andres Astiz: 55, 56, 83, 84, 107, 137, 143, 149, 161, 175, 199, 207.
- GOKOZIKA (B.). — Ignacio Lafuzea: 48, 200, 224. Antonio Zugazaga: 96.
- LAÑAUN (AN.). — Francisco Iguzkiza, de Añitiz: 18, 28, 188. Francisca Iribafen, de Baraibar: 32, 43, 104, 128, 163, 180, 97, 99, 181. Martin Jose Mikelarena, de Baraibar: 12.
- LEKEITIO (B.). — Guillerma Akañegi: 4. Aurora Maria Azkue: 146. Dolores Etxebarria: 49. Jose Francisco Maruri: 21. X: 33, 117, 216.
- LEMONA (B.). — Celestina Menika: 5, 62, 118, 138, 162.
- LENIZ (Valle-B.). — X: 80, 88, 205. Teresa Pagoaga, Gatzaga (Salinas): 113. Juan Uriarte, Guellano: 74, 81, 108, 129, 144, 156, 178, 208.
- LIGI (S.). — X: 192. Jaureguibeñy: *Ligiko Zubia*.
- LUSAIDE (Valcarlos BN.). — Ana Maria Camino: 9. X: 68.
- MARKINA (B.). — Domingo Aldazabal: 14, 34, 54, 86, 93, 97, 99.
- MATXINHENTA (G.). — X: 167.
- MAULE (S.). — Santiago Pulit: 209.
- MURELAGA (B.). — Maria Martina Maruri: 2, 24, 27, 45, 61, 64, 72, 90, 92, 105, 186. Francisco Urquiaga (a) *Don Patxi*: 8, 26, 77, 213. X: 79.
- NABARNIZ (B.). — Tomas Ibarguen: 20. Maria Josefa Izpizua: 59, 85, 87, 126, 145, 198, 212, 230.
- OTXANDIANO (B.). — Mercedes N.: 13, 58, 65. Tomas Eñia: 31. Pedro Goikolea: 193. X: 122, 184.
- RONCAL: Mariano Mendigatxa, Bidangoz edo Bidankoze: 16, 136, 151, 202, 226.
- SARAITZU (Salazar). — Francisca Fano: 73.
- ULEAMA (AN.). — Justo Albisu, Alkoz: 23, 47, 66, 67, 98 bis, 159, 160, 164, 182, 185, 203. Pedro Arbilla, ....: 17, 148, 221.
- URSUARAN (G.). — Tomas Ayarbe: 135.
- URDAYS (a) Santa Garazi (S.). — Margarita Othekar: 219. Maria Anpo: 228.
- ZARATAMO (B.). — Domingo Azkoeta: 10, 30, 37, 63, 75, 124, 147, 153, 155, 157, 169, 191.

Auxe ta Markinako seme Aldazabal nik 1898-gaen urtean, Bilboko Txiroen arebatxoetan, ipuin ta politen yakinarazle izan nituen.

A este y a Aldazabal, hijo de Markina, tuve como maestros de muchos y lindos cuentos el año 1898, en las Hermanitas de los Pobres de Bilbao.

V. Beste zerbait. A) Eñiak ipuinai, geien geienai beintzat, ezte izenik ematen. Bizkai ta Gipuzkoan maiz entzuten da ipuin-izentzat *Peru ta Maria*. ¡Amaika *Peru ta Maria* entzun ta esan ere izango genituen umezaroan!

Izen ofezaz bi baizik ez tira ageri liburu onetan. Beste guziak aurke-riatxoak baizik etziran.

B) Ipuin-esale gaztetxoan artean ipuinak beti daukate esakera bat, beti berdina, asteko; ta beste bat, berdina au ere, amaitzeko. Bizkaian au da asierako esakera: *Bein munduan, asko legez, N ta N bizi ziran*.

Mundakan aurfak (nire ama aur zanean beintzat) onela asten zituzten beren ipuintxoak. Beren arteko aur-eratuena galdeera au egiten zien lagunai: «*zenbat aurtza yan dozuz zuk?*» Onezaz adiarazi nai zuen: «*Zenbat ipuin dakizuz?*» (Orduan ere to ta noka gutxitan itz egiten zan, urietan beintzat).

Gipuzkoan onela asten dira: «*Bein batean bizi ziran N. ta N.*»

Zuberon: «*Behin bazen...*»

Benapañoan: «*Munduan, anitz diren bezala, bazen gizon bat...*»

Napañoa goikoan: «*Aldi betez bizi zen gizon bat.*»

Amaitzeko esakeratxorik entzun-ena auk dira.

Bizkaian: «*Arck ondo bizi baziran, gu obeto bizi gaitzala.*»

V. Alguna otra cosa. A) El pueblo no da nombre a los cuentos, por lo menos a la mayor parte. En Bizkaya y Guipuzkoa mucho se oye «Pedro y María» como título del cuento. ¡Cuántos «Pedro y María» habremos oído y dicho en la niñez!

En este libro sólo dos figuran con ese nombre. Todos los demás no eran otra cosa que niñerías.

B) Entre los jovencitos que refieren cuentos tienen éstos un dicho, siempre el mismo, para empezar; y otro, también éste igual, para terminar. La fórmula inicial es ésta en Bizkaya: «*Una vez, en el mundo, como muchos otros, vivían N. y N.*»

En Mundaka, los niños (por lo menos cuando era niña mi madre) empezaban así sus cuentecitos. El mayorcito de entre ellos hacía a sus compañeros esta pregunta: «*¿Cuántos huevos habéis comido vos?*» Con esto quería dar a entender: «*¿Cuántos cuentos sabéis?*» (Aun entonces se hablaba raras veces tuteando, por lo menos en las villas.)

En Guipuzkoa empiezan así: «*En cierta ocasión vivían N. y N.*»

En Zuberoa (Soule): «*Una vez había...*»

En la Baja Navarra: «*En el mundo, como hay muchos, había un hombre...*»

En la Alta Navarra: «*En cierta ocasión vivía un hombre...*»

Las fórmulas finales más oídas son éstas.

En Bizkaya: «*Si aquéllos vivieron bien, que nosotros vivamos mejor...*»



Gipuzkoan (Bizkaiko toki batzuetan ere bai): «*Ala (alan) bazan edo ezpazan, sartu dedila kalabazan.*»

Ainhoa (L.)-aldean bi dauzkate. Bata: «*Hek ongi bizi? gu obeki.*»

Bestea: «*Geroztikako beririk ezta-lit nik.*»

Irakurleak igari dezakenez, esakeratxo anek, pafe eragitekoak diralako edo, zafagoen artean etziran ta eztira erabilten, bein edo beintxotan zan ezik.

En Guipuzkoa (también en varios lugares de Bizcaya): «*si fué así o si no fué así, que se meta en la calabaza.*»

En la región labortana de Ainhoa tienen dos. La una: «*¿Estos vivieron bien? Nosotros mejor.*»

La otra: «*Noticias posteriores yo no las sé.*»

Como puede adivinar el lector, estos dichos, sin duda por ser fórmulas risibles, no se usaban ni se usan entre personas mayores, no siendo alguna rarísima vez.





1. — AETZ TA SARAITZUAÑEN ARTEAN

**B**LIN aetzen kontu ta atraldiekin iri ta bafez zaude saraitzuar batzu ostatu bateko maian, ta gertatua bezala au kon-tatu zue gebetaik batek:

Aetz sakristau bat bere apez nau-siak Iruñera igoñi zuzun bein inzen-sario beñi eder baten erosi ta ekar-tzazon. Mutilari Iruñera gabe inzen-sario izen kau atzendu zitzaion. ¡Aren lotsa! Bear zuena dendarieci nola adiarazi etzakielakotz ¡aren lotsa!

Kendu zuzun aetzak bere zangotik zata ta ugaletarik dilindan eskui ta ezker erabiliz irakatsi ta bilatu zu-zun nai zuen gauza.»

Saraitzuañek beren irialdi odeña ein zutenean, aetz batek erantzur zakote:

Saraitzun ere izan omendira gizon atzenkojak, eta ez nolanaikoak.

—¡Atzendu! ¡Zer ta nori?

1. — ENTRE AEZKOANOS Y SALACEN-COS (BN)

Una vez estaban unos salacencos riéndose en la mesa de una posada con cuentos y ocurrencias de aezkoanos, y uno de ellos refirió esto como cosa sucedida:

«A un sacristán aezkoano envió su cura mayor a Pamplona en cierta ocasión para que comprara y le trajera un nuevo y hermoso incensario. Al muchacho, antes de llegar a Pamplona se le olvidó este nombre de incensario. ¡Qué miedo el suyo! Porque no sabía cómo dar a entender a los tenderos lo que necesitaba. ¡Qué miedo!

El aezkoano se descalzó la abarca y, moviéndola colgada de correas de derecha a izquierda, dió a entender y halló lo que quería.»

Cuando los salacencos terminaron su hermosa risotada, un aezkoano les respondió:

—Dicen que también en Salazar ha habido hombres olvidadizos, y no como quiera.

—¡Olvidar! ¿Qué y a quién?

—Barka, jaunak; baia Saraitzuko efi batean, jendeek diotenez, beren auzo bateko batzañean elizan gauza andi eder ta on bat ezari bear zutela xarduki zute. Beren alkatea bidali zute gaiek nai bezalako gauzak eiten zituzten olara, eranez:

«Zu zira gutartean biziena, iratziafiena ta obekienik mintzo zirena.»

Alkateari gauza andi eder on garen izena atzendu zitzaio; ta dendaz denda ibiliz nekatu zenean, dendari bati galde ein zako:

—*¿Non saltzen xu elizetako gauza andi, tutu batzurekin, gizon batek eskuak arat eta unat erabiliz ooooiij ooooiij sonatzen xuna?*

Astoaren ofoa bezal-bezalakoa einiez adiarazi omenzue alkateak erosi nai zuena: organu bat.»

Ez omenzakote saraitzuañek kontu goni ifirik ein al izan.

—Perdonad, señores; pero, según dicen las gentes, en un pueblo de Salazar trataron en pública junta de que en la iglesia habían de colocar una cosa grande, hermosa y buena. Enviaron a su alcalde a la fábrica en que hacían cosas como la que aquellos querían, diciendo:

«Vos sois entre nosotros el más vivo, el más despierto y el que mejor habla.»

Al alcalde se le olvidó el nombre de aquella cosa grande, hermosa y buena; y cuando se cansó de andar de tienda en tienda, preguntó a un comerciante:

—¿Dónde se vende una cosa grande, de iglesia, con unas largas trompetas, que un hombre, moviendo sus manos acá y allá, hace sonar, ooooiij ooooiij?

Dicen que el alcalde manifestó lo que quería comprar, dando rugidos como los del burro: un órgano.»

Añaden que los salacencos no pudieron reírse de este cuento.

Petra Arotzarena, de Abaulepea (Aezkoa).

## 2. — ALABA TA ALABORDEA

**G**IZON bat, alaba bakar gaztetxo baten aita zala, alargun itxi eban bere emazteak. Etxea ezin ondo erabilita, soineko baltzak kentzeko eguna eldu dakaneko, bigañenez ezkontzeko asmoa izan eban. Bigañen emaztetzat bere añañean lenengo agertu zan emaku-

## 2. — HIJA E HIJASTRA (B)

A un hombre, que era padre de una hija única y jovencita, dejóle viudo su mujer. No pudiendo gobernar bien la casa, en cuanto le llegó el día de quitarse el luto, tuvo el proyecto de casarse por segunda vez. Por segunda esposa tomó a la primera mujer que apareció en su presencia. Ella era bruja. Pronto tuvo



mea artu eban. Sorgina zan berau. Laster sorgin onegandik beste alaba bat izan eban. Bigarñen au seinzarotik urtenda gaztezarora eldu-orduko, il zan bere aita. Sorgina ordutik auñera alaba ta alabordea lagun ebazala bizi zan. Alabeari eutsan maitetasuna baizen andia zan alabordearentzako gorotoa ta ikusi ezina. Ezin egoañiz eroan eban bere eñaietako neskatoa itxusi, ezin itxusiago zala, lenengo emaztearen umea eder, geroago edefagoa izatea. Bein, negu gorñan, paperezko soinekoz yantzi ta oinutsik mailukitara bialdu eban au, zimera bete ekarteko esanda. Otzen otzaz dardar yoan zan neskato eñukañia ta txabola baten iru gizon aurkitu ebazan.

—¿Nora oa, neskato? Itandu eutsen.

—Amak mailukitara bialdu nau.

—¿Mailukitara! ¿Dagoan otzaz ta daukanan yantziat! ¿Zelako ama don ori?

—Amordea dot.

—Aolan bai. Bada ortxe txabolaatzeko egurpean ediroko donaz mailukiok, zimera bete gitxienez.

Mailuki edereñ zimeratxoa bete bete egin ebanean, eskeñak erakustera iru gizonakana yoan zan. Ónek maiterik artu ta iru bezuza egin eutsazan.

Batak:

—Esango donan itz bakotxeko ure-zati bat yausiko al-dan.

Besteak:

de esta bruja otra hija. Antes que esta segunda, saliendo de la infancia, llegara a la juventud, murió su padre. De entonces en adelante quedó la bruja teniendo por compañía hija e hijastra. Tan grande como el amor que tenía a la hija era el odio y animadversión para con la hijastra. No podía sufrir con paciencia que la muchacha de sus entrañas fuese fea, feísima, mientras era hermosa, cada día más hermosa, la niña de la primera mujer. Una vez, en pleno invierno, envió a ésta vestida de traje de papel y descalza a recoger fresas, encargándole trajera un cesto de ellas. La pobre muchacha fué temblando de puro frío y encontró a tres hombres en una choza.

—¿Adónde vas, muchacha? —le preguntaron.

—La madre me ha enviado a por fresas.

—¿A por fresas! ¿Con el frío que hace y con el vestido que tienes! ¿Qué clase de madre es ésa?

—Es mi madrastra.

—¿Ah, ya! Pues ahí mismo, bajo las leñas de detrás de la choza hallarás tales fresas, por lo menos para llenar un cesto.

Cuando llenó colmadamente de hermosas fresas el cestito, fué a los tres hombres a darles las gracias. Estos, acogiéndola cariñosamente, le hicieron tres regalos.

El primero dijo:

—Ojalá te caiga un pedazo de oro por cada palabra que pronuncies.

El otro:

—Egunean baiño egunean edefago izango al-aiz.

Irugañenak:

—Ildakoan angeruak zeruan sartuko al-abe.»

Etxera elduta, amordeak zimera-txoa mailukiz betea ekañela ta bera len baino edefago etofela ta urtutika ikusi ebanean

—¿Non izan aiz, neskato?— itandu eutsan.

—Gaintxo ofetxen beste aldeko txabola baten izan naiz.

—¿Inor ikusi don bertan?

—Iru gizon, Eurak erakutsi dauste mailuki-lekua.

Au entzunda, bere alabea soineko eder lodiz yantzi ta zimera-txoa bera eskuan añarazota si, neskato esan eutsan alabordeari:

—Lagun egion oní txabola ori uruntxotik ikusten dan gaintxoragino. Ator gero eu bakarik etxera.»

Sorginaren alabatxoa txabolara eldu zanean, iru gizonak an ikusita,

—Amak mailukitara bidaldu nau neu bere, esan eutsen.

—¿Mailukitara! ¿Zimera-kada bat ezalozue naikoa?

Ezeutsen mailukitegirik erakutsi. Iru bezuza bai ari bere egin eutsezan.

Batak:

—Egingo donan itz bakotxeko zapoa yausiko al-dan.

Besteak:

—Ojalá seas cada día más hermosa.

El tercero:

—Ojalá, al morir, te introduzcan los ángeles en el Cielo.

Al llegar a casa, cuando vió la madrastra que traía el cesto lleno de fresas y que ella venía aún más hermosa que antes y sembrando oro, le preguntó:

—¿Dónde has estado, muchacha?

—He estado en una choza del otro lado de esa pequeña cima.

—¿Has visto a alguien allí?

—A tres hombres. Ellos me han mostrado el lugar de las fresas.

Al oír esto, hizo la bruja que su hija se vistiera de hermosos gruesos vestidos, y haciendo que cogiera en su mano el mismo cesto, dijo a la hijastra:

—Tú, muchacha, acompaña a ésta hasta la cima por donde se ve de lejitos esa choza. Ven después tú sola a casa.

Cuando llegó a la choza la hija de la bruja, viendo allí a los tres hombres, les dijo:

—También a mí me ha enviado la madre a por fresas.

—¿A por fresas! ¿No tenéis acaso bastante con un cesto?

No le mostraron ningún fresal. Tres regalos, sí, también a ésta le hicieron.

El uno:

—Ojalá te caiga un sapo por cada palabra que pronuncies.

El otro:



—Egunean baino egunean itxusia-  
go izango al-aiz.

Irugañenak:

—Ildakoan Txefenek eta lagunak  
inpernura eroango al-abe.

Etxera elduta amak zimeratxo  
utsik, zimeraduna itsusiago ta aotik  
zapo-urtika ikusirik, len baino bere  
goroto andiago artu eutsan alabor-  
deari. Uñengo egunean otzen otzaz  
ibaia izoztuta (leituta) egoan. Orixe  
nai eban sorginak. Alabordea, ma-  
taza batzuk eskuan añarazota, ibai-  
ra eura yotera bidaldu eban: aue-  
gunean legez, ortozik eta erdi biloiz-  
ik ¡gaixoa! Ibaiondora eldu zanean  
eskuak mangututa, matazak indarga  
yoten eragoiola, zaldun batek ain  
edeñ ta ain mañoz yantzita ikusirik,  
eiukiañen beraganako bidea artu  
eban:

—¿Zetan diardun emen, neskato?

—Amak arizko matazok garbi-  
tzera (ikuztera) bidaldu nau.

—¿Dagoan otzaz ta daukanan yan-  
tziaz! ¿Zelako ama don ori?

—Amordea dot.

—Aolan bai. Ator neure etxera.  
Neure amak alabatzat artuko au be-  
tiko.

Zaldun ori eñege zan ta bere emaz-  
te izatera eroan eban neskatoa. Eñe-  
geren amak bene benetako alabeari  
langoxe maitetasuna eutsan eñanari.  
Au lenengo seina izateko egoala, be-  
ronen amorde sorgina, bari ónek  
yakinda, alabea lagun ebala, araxe

—Ojalá seas cada día más fea.

El tercero:

—Ojalá, al morir, te lleven al in-  
fierno Belcebú y sus compañeros.

Al llegar a casa, viendo la madre  
vacío el cesto, más fea la que lo traía  
y arrojando de la boca sapos, cobró  
para con la hijastra un odio aún  
mayor que antes. Al día siguiente, el  
río estaba helado de puro frío. Eso  
es lo que quería la bruja. Envió a la  
hijastra, haciéndole coger unas ma-  
dejas de hilo en la mano, enviola al  
río a que las golpeará: descalza, como  
la víspera, y medio desnuda, ¡po-  
brecita! Cuando llegó junto al río,  
teniendo yertas las manos, y golpean-  
do sin fuerzas las madejas, un caba-  
llero, viéndola tan hermosa y tan  
astrosamente vestida, movido de  
compasión, se fué a ella y le dijo:

—¿En qué te ocupas aquí, mu-  
chacha?

—La madre me ha enviado a lavar  
estas madejas de hilo.

—¿Con el frío que hace y con el  
vestido que tienes! ¿Qué clase de ma-  
dre es ésa?

—Es mi madrastra.

—¡Ah, ya! Ven a mi casa. Mi ma-  
dre te adoptará por hija para  
siempre.

El tal caballero era el rey, y llevó  
a la muchacha a que fuese su esposa.  
La madre del rey tenía a la nuera un  
amor como si fuera hija propia. Es-  
tando ésta para tener el primer niño,  
su madrastra, la bruja, al saber estas  
noticias, se fué allá mismo a vivir

yoan zan bizi izatera. Eztakigu sorginak nundik nora lortu eban yauregian sartu ta eiegina gaztearen emagin izatea. Efege ta bere ama sein bariaz baratzeko lora-artean eguzkia artzen egozan bitartean, sorgina, bere alaba zatafa lagun ebala, ama bafi zoritsuaren gelan sartu zan. Au ogetik kendu ta bere orde z izara-artean bere alaba zatar zapoduna sartu eban.

Efege gelaratu zanean bere emazte edera emakume itxusi bihurturik ikusita, zer egin ezekiala egoan. Sorginak lentxoago alabarde eiegina ibaira yaurtigi eban. Orduan txori bat txioka asi zan:

Txin txauñ txorfa  
txoritxu txilibitaria  
astoan arto-bitxia,  
upan edergafia,  
salduna doa zoroa,  
moroa langoa daroa.

Alantxe igari eben benetako eiegina non egoan. Sorgina laban eie eben ta bere alaba zatafa bariz itxasoan irato.

en compañía de su hija. No sabemos por qué medio consiguió la bruja meterse en palacio y ser partera de la joven reina. Mientras el rey y su madre estaban entre las flores del jardín tomando el sol con el recién nacido, la bruja, teniendo por compañía a su feísima hija, entró en el cuarto de la nueva y feliz madre. Quitando a ésta de la cama, metió en su lugar entre sábanas a su hedionda hija, la de los sapos.

Cuando el rey entró en el cuarto y vió a su esposa convertida en fea mujer, estuvo no sabiendo qué hacer. La bruja, poco antes, arrojó al río a la reina, su hijastra. Entonces empezó un pájaro a gorjear:

Chin Chaun pájaro,  
pajarito silbante (1)  
en el burro dijes de maíz,  
en el tonel un adorno,  
el caballero va loco,  
lleva como a un moro.

Así conocieron dónde estaba la verdadera reina. Quemaron a la bruja en el horno y a su hedionda hija la ahogaron en el mar.

María Martina Murrutxu, de Murelaga.

Entre los cuentos caucásicos de la gran colección citada en el Prólogo, *Die Märchen der Weltliteratur*, hay uno titulado *Die Stieftochter* (La hijastra), algo parecido a este nuestro. Figuran en él un viudo, padre de una hija, que volvió a casarse, y de su segunda mujer tuvo otra hija. La nueva madre odiaba a su hijastra, y consiguió echarla de casa y que viviera en un bosque. Habitaba la pobre una choza. Cada noche preparaba en una caldera papilla de sémola. Al tomar ella su alimento salió de un agujero un ratón y le pidió algo de aquella papilla. La muchacha accedió a su petición. El ratón, cuando comió lo necesario, dijo a la muchacha:

—Esta noche vendrá acá un oso, te dará una campanilla y te dirá: «Toma esta

(1) Así me dió la hija de Murelaga estos versitos. Es difícil penetrar su sentido. Puede leerse en mi *Cancionero popular vasco*, pág. 640, la canción *Txin-txu txorfa, txoritxu txilibitaria*. Estas palabras parecen tomadas de las del cuento.



campanilla y corre tres veces a casa. Si yo no te alcanzo, recibirás de mí un carruaje de plata con tres caballos; si te alcanzo, te mataré y me servirás de alimento.» Tú luego me darás la campanilla y con ella correré yo por ti las tres veces. Tú recibirás el premio ofrecido y serás feliz.

Sucedió lo predicho por el ratón.

La madrastra, creyendo que ya la hija de su marido habrá sido devorada por alguna fiera, hizo que el padre fuese al bosque en busca de los restos de su hija. Al ver poco después que padre e hija llegaban a casa en suntuoso carruaje, envió a su propia hija al mismo bosque. Estando ella cenando la primera noche, salió de su agujero el ratón, como la otra vez, y le pidió algún alimento. La muchacha, lejos de eso, mató al ratonzuelo. Llegó a media noche el consabido oso. Entregó a la muchacha una campanilla. Hizole la misma propuesta que a la otra. Y cuando ya echó ella a correr, el oso la alcanzó y la comió. Su madre, de allí a poco, envió al marido en busca de la hija, creyendo que también vendrían en carruaje de plata. El padre no halló en el bosque otra cosa de su segunda hija que los huesos.

### 3. — ALBOKARI BAT PARISEN



ARATIAKO aranean albokariak orain baino ugari-txoago ziran lenago. ¿Gizonak orain makaltxoago diralako eteda? Egia esan alboka bat yoteko biriak onak bear dira: indartsuak, sendoak, gogoñak, nekagaitzak. Aoz yoten diran beste instrumentuak (joareak) jotzaileri noizik noizera aoa zabaldu ta arnasa artzen izten dautse. Albokeak ez. Suñetatik artzen dabe arnasa albokariak, aoa beti alboka-mustuñari aginka usegiten lègez daukela.

Orain laureun bat urte Zeanurin bizi zan Aratiako albokari izen andikoena. Bera ilda ufengo iru bat gizalditan «¡Aren bulaña langorik!» esaten zan. Bere izena ezta gugana eldu. Bein ardantegi baten egoala (batzuren ustez Ufunagan yazo zan au) polito edanda gero,

### 3. — UN ALBOGUERO EN PARÍS (B)

En el valle de Arratia había antiguamente más albugueros que ahora. ¿Será porque los hombres son ahora algo más débiles? A decir verdad, se necesitan buenos pulmones para tocar el albugue: fuertes, sanos, duros, casi infatigables. Los demás instrumentos que se tocan con los labios permiten al artista abrir la boca y tomar aliento. El albugue no. Los albugueros toman aliento por la nariz, teniendo siempre la boca como mordiendo el pico del albugue.

Hace como cuatrocientos años, vivía en Zeanuri el más famoso de los albugueros. En tres generaciones que siguieron a su muerte, se decía: «¡Pecho como el de aquél!» No ha llegado a nosotros su nombre. Estando en cierta ocasión en una taberna (a juicio de algunos pasó esto en un pueblecito alavés de Urrunaga), después de beber una cosa regular, decía el zeanuriano:



Albolarri bat Parisen

Un albugero en París

—¿Nire bíriak langorik nok?» zinoan Zeanuriztarak. «Parisko kalerik luzêna mandoz burutik burura alboka yoten igaroko neuke nik, aoa bein

—¿Quién (tiene) pulmones como los míos? Yo pasaría la calle más larga de París a macho, de un extremo a otro, tocando albogue, sin abrir



bere zabalduen eztoala eta etentzaka, isildu bagarik.

—Orixe ikustearen, neu bere Paris ofetara yoango nintzakek. ¡Eta zer yokatuko doagu, Afati?

—Mando goñi eder bana, gura badok.

—Ederto. Astelen goizean urten-go doagu. Bitoriara yo ta an Parisako zein bide artu bear dan bat edo batek esango al dauskuk.

Alango baten Frantziako uri andi eder atara eldu ziran gizonok. Kale-rik luzena zein zan itandu ta yakin eben, eta goiz baten eguzkiaz batera kale luze-luze aren musturean asita mando banatan trapa-trapa asi ziran biak ibilten, albokaria ibilten ta yoten. ¡Goizean asi ta iluntzean bere yoten, etentzaka, ez isildu ez aoa zabaldu bagarik! ¡Yotea da! Mandazainak, euren temea galdu bear ebala ikusirik, bere mandoari aútea artu eraginda, alboka-mustura bere eskuaz itxi ta yotzaile gizagai-xoa arnasarik artu ezinik ito ta mando-ganetik gorpu yausi zan.

Albokariak yoten eragoionartean huruan erabilen-uste bat bertso onetantxe norbaitek yañi eban, eztakigu zeinek.

Goizean Parisen, gabean Parisen

¡su da Parisko kaleen luzea!  
Auxe kale au pasata banauko,  
atzeko mando goñi au neurea.  
¡Itzerdi-patsetan, alboka-otsetan  
zarpi legoa luze dan kalea!  
Zarpi legoak eginda banaukaz,  
Afati etsera mando-yauben.

ni una vez la boca y sin interrupción, sin callarme.

—Por ver eso, también iría yo a ese París. ¿Y qué apostamos, Arrati?

—Si quieres, un macho rojizo, hermoso, apostará cada uno.

—Muy bien. Saldremos de aquí el lunes a la mañana para Vitoria y alguien nos dirá seguramente qué camino hay que tomar para París.

Llegaron por fin nuestros hombres a aquella hermosa ciudad de Francia. Preguntando, supieron cual era la calle más larga, y una mañana empezaron a andar los dos, juntamente con el sol, desde un extremo de aquella larguísima calle. ¡Empezando a la mañana seguía tocando al anochecer, sin interrupción, sin callarse ni abrir la boca! ¡Ya es tocar! El arriero, viendo que había de perder la apuesta, hizo que su macho tomase la delantera, cerró con una mano la abertura saliente del albugue y con la otra impidió que el pobre artista alentara, el cual, ahogado y ya cadáver, cayó de su macho.

Mientras tocaba el albuguero tuvo un pensamiento que alguien, no sabemos quién, lo dió a conocer en estos versos:

Por la mañana, en París; en París por  
[la noche.

¡Qué largura la de las calles de París!  
Si tuviera recorrida esta calle,  
mío fuera el macho rojo que detrás viene.  
¡Sudoroso, tocando el albugue,  
en calle que tiene siete leguas de largo!  
Si las siete las tuviera recorridas,  
volvería Arrati a casa dueño del macho.

Zortzi bertso ónetati bost, zazpi, ta zortzigafena liburu au eratu dabena eginak dira. Eriagandik ezotara ezin atara al izan ebazan. Itz ónen musika Azkueren Cancionero popular vascoren 977-gafen órialdean agertua izan zan eta ipuin onen bafiliburuan bertan 22-gafen órialdean ikusi dagiko irakurleak. Ipuina ta musika Bediako seme Juan Martin Ibañetxeri ikasi neutsazan. Uñunagako zertzelada ori bañiz Otxandianoko adiskide bati.

## 4. — ALKARTUAK



**A**BERATS batek mundua ezagutu gura ebala ta etsetik urtenda bidez yoala gizon bat aurkitu eban egur txondor eskerga bat egiten. Bera lotzeko aritzik andienari oratu, sustaretik atara ta bidurtu eban. Au ikuseran

—Neugaz bear doko esan eutsan aberatsak.

Arik lastefean beste bat aurkitu eben gora begira.

—¿Zetan diarduk?— itandu eutsan ak.

—Ordu bete da bunpada bat yaurtigi dodala: beste ordu bete bañu yatsiko da.

—Ator geugaz i bere.

Irugañen bat, belañiak luñean ebazala, aurkitu eben.

—¿Zer darabilk, mutil?— itandu eutsan aberatsak.

—Munduko yoan-etoñiguztien bafñi dakit nik, belañiai eskerak. Bat eztakit ofegaitino.

—¿Zein dok eztakian ori?

De estos ocho versos, el quinto, séptimo y octavo, son del folklorista. No pudo arrancárselos al pueblo. La música correspondiente fué publicada en la página 977 del *Cancionero popular vasco* de Azkue; y en la página 22 de la misma obra puede el lector enterarse de este cuento. Tanto el cuento como su música aprendí de Juan Martín Ibarreche, hijo de Bedia. Esa circunstancia de lo ocurrido en Urrunaga la supe de un amigo de Ochandiano.

## 4. — LOS ASOCIADOS (B)

Un rico, habiéndose propuesto conocer el mundo, salió de casa, y, según iba andando, encontró a un hombre haciendo una enorme carga de leña. Para atarla agarró al roble más grande, lo sacó de raíz y lo retorció. Viendo esto díjole el rico:

—Tienes que venir conmigo.

De allí a poco encontró a otro mirando arriba.

—¿En qué te ocupas? —le preguntó aquél.

—Hace una hora que he disparado un tiro: bajará dentro de otra hora.

—Ven también tú con nosotros.

Encontraron a un tercero que tenía sus oídos pegados a la tierra.

—¿Qué traes, muchacho? —preguntóle el rico.

—Yo, gracias a los oídos, sé noticias de todos los sucesos del mundo. Sin embargo, ignoro uno.

—¿Cuál es ése que ignoras?



—Gariak ernekeran egin daroen zaratea.

—Geugaz bear dok.

Laugarren bat aurkitu eben, atz bategaz surzilo bat itxita eukala.

—¿Zetan daragoiok olan?— itandu eutsan zarenak.

—Surzilo baten aizeaz alboko ola oietxen gabi ta ardatzak darabildaz. Biak zabaldu banegiz, ola ori sustraitik atara ta egaz leioake.

—Ator i bere geugaz.

Erege-urira eldutakoan, aupadaka asi ziran.

—Gu lango zama-yasotzailerik badago, betor bide-erdi.

Anpada au Eregeren belarrietara eldu zanean, uriko gizonik indartsuena bere yauregi-aufeko zelaira (plazara) erakarri eban. An egozan lau alkartuak. Ure-zidarez zoño andi batzuk txiltxil bete ta zelaira ekarri eragin ebazan.

—Or zare, gizonok— esan eutsen yasotzaileai eregeren inguruko batek.

Uriko indartsuak, zoño bat edo beste bai, baina guztiak ezta lokatu bere. Bidurdun alkartuak bariz, pilo guztia lumazkoa bailitzan leporatuta, diru guztia irabazi eban.

Pozez ta ondasunez heterik etserantzta etozan laurak. Irugarren alkartuak, zuriak, zeren afen, luñean

—El ruido que al brotar hace el trigo.

—Debes (venir) con nosotros.

Encontraron a un cuarto teniendo cerrada con un dedo una de las fosas de su nariz.

—¿En qué te ocupas de esa manera?—le preguntó el más viejo.

—Con el viento de una fosa nasal nuevo yo el mazo y los ejes de la herrería de ahí al lado. Si abriera las dos, esa fábrica, sacada de raíz, iría volando.

—Ven con nosotros también tú.

Al llegar a la ciudad del rey, empezaron a dar gritos de desafío.

—Si hay algún levantador de cargas como nosotros, véngase a medio camino.

Cuando este desafío llegó a oídos del rey, hizo que trajeran a la plaza de frente a su palacio al hombre más forzado de la ciudad. Allí estaban ya los cuatro asociados. Hizo (el rey) que llenaran por completo de oro y plata unos grandes sacos y los llevaran a la plaza. Un cortesano de su majestad les dijo a los cargadores:

—Podéis ya empezar (liter.: «Ahí sois, hombres»).

El forzado de la ciudad (pudo levantar) algún saco que otro, pero todos, ni siquiera moverlos. El asociado retorcedor, en cambio, echándose a la espalda, como si fuera de plumas, todo el conjunto, ganó todo el dinero.

Los cuatro volvían hacia casa llenos de dinero y de regocijo. El tercer asociado, el taimado, por lo que

belafia ezafi eban, munduan ze bari etezan yakiteko.

—Mutilak: galduak gozak —esan eutsen lagunai.

—¿Zer ba?

—Efegek ezin esan alako beste gudari dakazak onantza. Galduak gozak, izan.

Bigarren alkartuak, eskopetadunak:

—Ez ikaratu, mutilak, esan eutsen, ez bat bere ikaratu. Geldi bertan ta nor noraginokoa dan laster ikusiko dogu.

Laster ziran euren aurrean efegek bialduriko gudariak. Zelan agertu alan il ebazan eskopetadunak. Gero itsasoz ibili bear izan eben. Efegek ontziak betean bialdu ebazan euren yafrika itsasgudariak. Belafizufak orduan,

—Lagunak, esan eutsen, emen doguz beste batzuk.

Orduan laugarren alkartuak, arek noiz aurrean izango begira egonda, surzilo biak zabal-zabal ebazala, aizea ortik aizea emendik emonaz, efege ta bere gudari ta ontziok ondatu ebazan.

Ipuin au ta Sei barizale alkarren antzekoak dira.

Entre los años 1919 y 1922 publicó la casa editorial de Jena Eugen Diederichs, una colección de cuentos en doce tomos titulada *Die Märchen der Weltliteratur* (Los Cuentos en la literatura mundial). En el cuarto tomo, en que se exponen cuentos caucásicos (*Kaukasische Märchen*), hay unos pocos que tienen algún parecido con los de esta colección vasca. A este cuento nuestro, *Alkartuak* (Los asociados), se asemeja *Der Träumer* (El soñador), quinto de los cuentos del Cáucaso. Este soñador,

pudiera suceder, aplicó el oído a la tierra para saber lo que en el mundo ocurría.

—Muchachos: somos perdidos —les dijo a los compañeros.

—¿Pues qué?

—El rey trae hacia acá un número indecible de guerreros. Somos perdidos.

El segundo asociado, el de la escopeta, les dijo:

—No os asustéis, muchachos, no os asustéis. Quietos aquí mismo y veremos luego la capacidad de cada uno.

Pronto estuvieron delante de ellos los guerreros enviados por el rey. Según aparecían, así los mató el escopetero. Después tuvieron que viajar por mar. El rey envió para perseguirles buques llenos de combatientes marinos. El de los finos oídos les dijo:

—Compañeros: aquí tenemos a otros.

Entonces, el cuarto asociado, habiendo esperado a que aquéllos estuviesen delante, abrió sus dos fosas nasales y, dándoles viento por un lado y por otro, hundió al rey con todos sus guerreros y buques.

Celestina Menika, de Lemona. Este cuento y el titulado «Sei barizale (Seis curiosos) se parecen.



—¿Mila kolonia! Len amabost baditinat ¡¡eta nik aurä!!

Urango erdialdean bi aur egin zitün.

### 138.—EN LA IGLESIA DE ARALAR (AN)

En San Miguel de Aralar, dentro del templo, hay una piedra. Las que no tienen hijos suelen oír Misa sentadas sobre ella. Una vez se sentó allí una mujer que había tenido ya quince. Una serora del templo le dijo:

—¿No tiene usted acaso niños?

—¿Pues por qué?

—Porque ahí suelen oír misa las que no los tienen.

—¿Mil colonias! (demonios). Antes tengo ya quince ¡¡y yo (pedir) niños!!

En el siguiente parto dió a luz dos crios.

Francisca Iribarren, de Baraibar (Larraun).





## 139. — ARAOZKO KANTALARIA

**O**ÑATIKO buzotegi onetan,  
Araotzen, gizon bat bizi  
zan, beti kanta ta kanta  
orduak emoten zituana.  
Bein koba baten egoala,  
beti lez zerbait kantaten asi zan, eta  
norbaitek kantuz erantzuten eutsala  
konturatu zanean:

—¡Au doat poza! —zinoan—, Ére-  
gegana ñoak.

Bidez joëala oial-saltzaile bat aur-  
kitu eban. Onek, éregeganako joëala  
entzun eutsanean,

—Txarto yantzita zoiatz —esan  
eutsan—. An izango dozun iraba-  
ziaren erdia neutzat izateagaitik  
neuk soineko bañi garbi edeñez yan-  
tziko zaut.

Araozko kantalaria, éregeren aúr-  
era elduta, ekian guztia kantau eban-  
ean, éregek txarto eritxita, sari-  
tizat beñeun makilada emon eioezala  
agindu eban:

—¡Beñeun! Orduan eun oialduna-  
rentzat.

## 139. — EL CANTOR DE ARAOZ (B)

En este barrio de Oñate, en  
Araoz, vivía un hombre que emplea-  
ba horas en cantar y cantar. Estan-  
do una vez en cierta cueva, empezó,  
como siempre, a cantar y dándose  
cuenta de que alguien le respondía  
cantando, dijo:

—¡Qué contento estoy! Me voy  
donde el rey.

Según iba de camino, encontró a  
un vendedor de paños. Este, al oírle  
que había de presentarse al rey, le  
dijo:

—Vais mal vestido. Yo os he de  
vestir con nuevo, limpio y hermoso  
traje, a condición de que sea para  
mí la mitad de lo que allí habéis de  
ganar.

Llegó el cantor de Araoz a la pre-  
sencia del rey, cantó todo lo que  
sabía, pero al rey le pareció malo  
y ordenó que como premio le diesen  
doscientos palos.

—¡Doscientos! —dijo el cantor—.  
De consiguiente (resérvense), cien  
para el pañero.

Juan Urrutia, de Guellano (Leniz).



## 140. — AÑASTANGO JENTIL-AÑIA



TSU zegoen jentilen nagusia. Aldi artan lañoa ta euria otziran ezagunak, sortzeko zeuden. Gauerdiko basurez edo intzez bizi ziran luñak. Bein itsuak lagunai.

—Motilak —esan zien—, usai bat aditzen det eta begira zazue bazter-etara ondo.

—Itsasgainean alako zerbait agerida.

—Atalai batzuekin nere betazalok zabal itzazue.

Ala egin zioten. Ernaga mendian gertatu zan au. Itsuak, betazalak zabalduak zeuzkala, onela jafaitu zuen izketan:

—Ernaga ernega dila. Pilistindañak sortu dituk eta sekulako galduak gaituk. Zoko batera jaurtiki nazazue ni. Al dezuena egin zazue.

Jentilen nagusia orduan il zan eta bere lagunak aren gorputza Añastanera eraman zuen. Añastanen dago jentilañia, itsuaren obi-gainekoa. Orduan aienatu ziran jentilak gure arterik. Añastanen jentilen ezur-bila oraintsu nortzukbait ibili dira, baina alpeñik.

## 140. — LA PIEDRA DE LOS GENTILES DE ARRASTAN (G)

El jefe de los gentiles (gigantes) estaba ciego. En aquella época no se conocían la niebla ni la lluvia, estaban por nacer. Con el rocío de la medianoche vivían las tierras. Una vez, el ciego les dijo a sus compañeros:

—Muchachos, huelo algo extraordinario, y mirad bien a los rincones.

—Por encima del mar se ve algo.

—Con unas trancas, abridme bien los párpados.

Así lo hicieron. Esto pasó en el monte Ernaga. El ciego, teniendo ya abiertos los párpados, continuó hablando así:

—Ernaga que reniegue. Han surgido los Filisteos (*sic*) y estamos perdidos para siempre. Echadme a mí a un rincón. Vosotros, haced lo que podáis.

Murió entonces el jefe de los gentiles y su cadáver fué llevado por sus compañeros a Arrastan. Allí está la piedra de los gentiles, la de la sepultura del ciego. Entonces desaparecieron los gentiles de entre nosotros. Todavía no hace mucho han andado algunos en Arrastan buscando huesos de gentiles, pero en vano.

Manuel Antonio Arruebarrena, de Añauñ.



## 141. — ARDI ZAHAR BAT



LDI batez nausi-muthil batzu samats biltzen ari ziren. Sukaldeko lana berek egin behar izaten zuten, etxe hartan emaztekirik etzelakotz. Eguerdian yateko, ardi-buru bat zuten, duphinan egosten zutelarik. Suiaren akulatze-ko estakuriian nausiak ardura samats-lanak uzten zituen eta duphinako ardi zahararen buruari maiz mihia yaten zakon.

Mutilak, susmoz, behin etxe-zoko batean burua gorde zuen, nausia zertan ari zen handik ikustekotz. Nausiaren lana zer zen ikusi zuenean, etxetik hura atera ta gero, berak ere sukalderatuta duphinako ardi-buruari bi begiak atera eta gogoz yan zitzaizkon.

Eguerditan biak bazkaritako bildu zirelarik, nausiak duphinatik ardi burua mai-gainean ezari ta itsu zalgola ikusiz eran zuen:

—Ardi zahar mukuzu, ¿bi begiak nun tuzu?

Mutilak nausiari orduan iharde-  
tsi zakon:

—Nausia, mihia emokozu eta berak eranen dautzu.

## 141. — UNA OVEJA VIEJA (BN)

Una vez, un amo y criado se ocupaban en recoger estiércol. Por no haber hembras en aquella casa, ellos tenían que ocuparse de los quehaceres de la cocina. Para comida del mediodía, tenían una cabeza de oveja cocinando en la marmita. Con el pretexto de azucar el fuego, el amo dejaba a veces las ocupaciones de la recogida de estiércol e iba a comerle la lengua a la cabeza de la vieja oveja.

El muchacho, sospechando, se escondió una vez en un rincón de la casa para observar desde allí en qué se ocupaba el amo. Cuando vió cuál era el trabajo del señor, en cuanto salió él de casa, también se fué el muchacho a la cocina, y arrancando los dos ojos a la cabeza de la oveja de la marmita, se los comió a gusto.

Al reunirse los dos al mediodía para comer, puso el amo sobre la mesa la cabeza de la oveja de la marmita, y observando que estaba ciega, dijo:

—Oveja vieja, mocosa, ¿dónde tienes los dos ojos?

Entonces contestó el muchacho al amo:

—Señor, déle la lengua y ella os contestará.

Oído en Donazaharre (Garazi).

## 142. — ARDOARI EZIN ITXI



SANTOMASETAN etxe ta lur-jabeari urteko erenta emon bear izaten dako ta estu egoten dira egun oréetan maistarak. Santomas batzuetan, estutasun onetan-txe egozala, dirua auferatzen asi bear zebela gogotan sartu jaken olagizon batzuri. Orétarako, ardoari iztea bear beárekoa zala ta urzale izatea erabagi zeben. Ardoa lenengo aita-tzen zebanak aroa bat baba zeukan multa (isuna).

Bein, oi bezela, eguerdian babak jaten olagizonok zerautsela, beretako batek, irailak (iyeleak), ardo gabe ezin jan zeban; ta edateko zeukan-gogoa zelabait esan nai ta ardo-izena aitatu gura ez... ta onela agertu zeban bere guraria:

—¡A, mutilak! Onlako alakoakin ezkenuke txara.

Maisuak gero:

—¡Onlako alakoakin? Gatzemai-lea dijoala zatoakin.

Andik auera ardoari jaraitu eutsen ta dirurik gabe joateu ziran Santomasetan etxera.

## 142.—NO PODER DEJAR EL VINO (B)

Como por Santo Tomás (el Apóstol) se acostumbra a pagar las rentas de las casas y heredades, los inquilinos suelen estar muy apurados ese día. A unos ferrones (obreros de herrerías), estando en esta apretura por unas fiestas de Santo Tomás, se les ocurrió que desde luego tenían que empezar a ahorrar dinero. Para esto, juzgando necesario dejar el uso del vino, resolvieron ser en adelante aguados. El primero que entre ellos hiciese mención del vino tenía por multa una arroba de habas.

Una vez, estando los ferrones, como de costumbre, comiendo habas al mediodía, uno de entre ellos, el laminador, no podía comer sin vino, y quería decir de alguna manera las ganas que tenía de beberlo; y no queriendo mencionar su nombre, de esta manera expresó su deseo:

—¡Ah, muchachos! Esto con aqué- llo no nos vendría mal.


El maestro, después, añadió:

—¿Esto con aqué- llo? Que vaya el cocinero con la bota.

De entonces adelante siguieron bebiendo vino, y por las fiestas de Santo Tomás iban a casa sin dinero.

Mariano Iriondo, de Alzola (Elgoibar).





Ardour ezin itxi

No poder dejar el vino

## 143. — ARIETAKO MANDAZAIA



QREAGARA mandazai bat kobesatzera fan ze, mandazaia zela apezari eñanez ta ardoari ura nasten zakola aitortu zue. Apezak:

—Ardoari ura nastea bekatu duk. Etzakala geiago golakoik egin.

Egun berean bere mandoak ardoz kargatzera fan ze. Gan norbaitek ardoari, beti bezala, ura gaineratu nai zako.

—Eken eken —eñan zue bekataria—, Gori eztokegu ein, bekatu baita. Iminazu lenik zagietan ura.

Etxekoak afiturik nagusiaren naia ein zute. Eta berak:

—Orai egotz zazie ardoa ufiki gabe, gori ezpaita bekatu.

## 144. — AÑOSAKO ZUBIA



AÑOSAN zubi bat egin behar zuzun argin nausi batek. Kontratua egin zuen hain egunetan finituko zuela, finitzen ezpazuen, hainbertze diru eman behar zuelarik. Etzuzun argin lagunik edireiten ahal ta ondar-eguna heldu zenean triste zagon gizona. Debrua agertu zakon eta eñan:

## 143.—EL ARRIERO DE ARRIETA (AN)

Fué un arriero a confesarse a Roncesvalles, diciendo al sacerdote que era arriero, y confesó que mezclaba con agua el vino. El sacerdote:

—Es pecado echar agua al vino. No hagas más tal cosa.

El mismo día fué a cargar de vino sus machos. Allí alguien, como siempre, quería echar agua al vino.

—Quita, quita —dijo el pecador—. Eso no lo podemos hacer, pues es pecado. Poned primero agua en los pellejos.

Los de casa, asombrados, hicieron la voluntad del superior. Y él (les dijo):

—Ahora echad vino sin compasión, pues que no es pecado.

Maximino Iziz, de Villanueva (Iriberry), en Aezkoa.

## 144.—EL PUENTE DE ARROSA (BN)

Un maestro cantero tenía que construir un puente en Arrosa. Hizo el contrato de terminar tal día, con la obligación de entregar determinada cantidad, de no cumplir el compromiso. No podía hallar compañeros canteros, y estaba triste el hombre al llegar el último día. Se le apareció el demonio, y le dijo:



—¿Zer duk hoien ilun izaiteko?

Argin nausiak éran zakon zer zuen. Eta debruak:

—Arima saldu nai badidak, neronek gaur finituko diat zubi hori, oilařak kukuruku egin baino lenago.

—Gizonak baietz salduko zakola éran ta zinatu ere bere odolarekin egin zion kontratua.

Bere emazteak ilun nabařean senařa neoiz baino tristeago ikusirik, zer zuen galde egin zakon. Emazteak yakin zuenean, éran zakozun:

—Neronek goizaldea baino lenago oilařari kukuruku yoraziko zakoa.

Debruak, neork ekusten etzituela, asi zuten zubiko lana.

—*To gilen-Artzak, Gilen-Emak, Gilen-alkaři ératen zakotela.*

Yendeak arituak ziran, nehor ikusten etzuelarik, ele hek entzutean.

Arginaren emaztea gauerdia baino lenxeago oilartegira yoan zuzun, eskuetan argi bat zuela.

Oilařak, argi hura ikusi zuenean, kukuruku behin ta beřiz ozen ozen yo zuen, eta berehala deabruak, azken hařia ezarı bear zuclarik, igesi yoan zituzun. Geroztik Ařosako zubia azken haři gabe han da.

—¿Qué te pasa para estar tan triste?

El maestro cantero le dijo lo que ocurría. Y el demonio:

—Si me quieres vender el alma, yo terminaré hoy ese puente antes de que el gallo haga kukuruku.

El hombre dijo que sí, le vendería, y hasta firmó el contrato con su misma sangre.

Viéndole su mujer, al anochecer, más triste que nunca, le preguntó lo que le pasaba. Cuando supo lo que ocurría, dijo ella:

—Yo haré que el gallo cante antes de la madrugada.

Los demonios comenzaron el trabajo del puente, sin que nadie les viera, diciéndose unos a otros:

—*Toma, Guillermo. Recibe, Guillermo. Dame, Guillermo.*

La gente estaba asustada al oír estas palabras, sin que vieran a nadie.

La mujer del cantero se fué al gallinero poco antes de la medianoche, con una luz en la mano.

Al ver el gallo aquella luz, dió sonoramente el kukuruku una y otra vez, e inmediatamente huyeron los demonios, cuando iban a poner la última piedra. Desde entonces, allí está, sin la última piedra, el puente de Arrosa.

Aprendido en Ahatsa (Garazi).

## 145. — ARTZAIN IZUKAITZA

**L**TXEGARATE-MENDIAN, Ataun-aldean, Galardi izendun basoko txabolari mutil zar bat ardiakin egoten zan. Inork eta ezerk etzuen mutil hura inoiz izutu. Bein Ataungo iru abade gazte, ikaratu bear zuela-ta, baso artara, Galardira, zuriz yantziak yoan ziran. Arbola baten gainean irurak zeudela, oidu triste batzuk egin zituen.

Orduan mutil zara txabolatik atarata agertu zan.

—Itxoozue, mutilak —esan zien—. ¿Zer ekañ dezue?

—Meza bana ofreziduta zeukaguta aren faltan Purgatorioan gaudek —erantzun zien oidulariak.

—Mutilak: itxoozue —esan zien—: beñiz artzainak: itxoozue, babak jan bear ditut-eta.

Txabolara joan zan ta andik beñiz agertu zanean,

—Mutilak, ¿dirurik badezue? —galde egin zien.

—Purgatorioan urte askotan gaudela, ¿guk nola dirua euki?

—Dirurik ezpadaukazue, alpeñik zabilzte, gure erian iru abade gazte bazaudek, dirurik bage golperik jo nai eztiñnak. Iruditen zatak abade oriek iru demonio badiela. Alpeñik ibiliko zaratea, zuen denbora guzian or Purgatorioan egon bearko dozue.

## 145. — PASTOR INTRÉPIDO (G)

En el monte de Echegarate, jurisdicción de Ataun, en la choza de la selva que lleva el nombre de Galardi, solía estar con las ovejas un solterón. Nadie ni cosa alguna le espantó nunca a aquel muchacho. Una vez, tres sacerdotes jóvenes de Ataun, vestidos de blanco, fueron a aquella selva, a Galardi, con intención de asustarle. Estando los tres sobre un árbol, dieron unos tristes clamores.

Entonces salió de la choza y apareció el solterón.

—Esperad, muchachos —les dijo—. ¿Qué habéis traído?

—Tenemos ofrecida una misa cada uno y, por falta de ella, estamos en el Purgatorio —le contestaron los plañideros.

—Muchachos, esperad —les dijo nuevamente el pastor—, esperad, pues tengo que comer habas.

Se fué a la choza y cuando vino de allí nuevamente:

—Muchachos, ¿tenéis dinero? —les preguntó.

—Estando muchos años en el Purgatorio, ¿cómo hemos de tenerlo nosotros?

Si no teneis dinero, andais en vano. Hay en nuestro pueblo tres sacerdotes jóvenes que no dan un solo paso sin dinero. Me parece que esos tres sacerdotes son tres demonios. Andaréis inútilmente. Todo el tiempo tendréis que estar ahí, en el Purgatorio.

Tomás Ayarbe, de Ursuarán.



## 146. — ARTZAINA TA OTSAILA



ARTZAIN batek eta urteko bigeñen ilebeteak, bisusturte batez otsailaren ogoi ta zortzigeñen egun-ean elealdia zabein:

—Otsailako, otsailko: ezdadak lotsarik ene axurientako.

—Orkak, orkak: egun bat baitud eta berze bat genten baitud ene anaie martxoari, ezdadak eitzen ez ariko eta ez artxorik.

## 147. — ASTOA ISILTZEKO



EROTARI bati astoak bere aiantzakin etzion gabez lorik egiten uzten. Abogadu batengana, zer egin otezozakean galdetzera, bein agertu zen. Erremedio eñaza erakutsi zion abogaduak. Atzeko isatseti zinzilika ari bat iluntzean jartzen zion eta uren goizerarte ez-zuen astoak aiantzarik egiten ta erotariak ederki lo egiten zuen.

## 146. — EL PASTOR Y FEBRERO (LITERAL, «MES DE LOBOS») (R)

Un pastor y el segundo mes del año tuvieron una conversación un año bisiesto, el día 28 de febrero:

—Febrerito, Febrerito: no tengo miedo para mis corderos.

—Aguarda, aguarda: tengo un día y si a mi hermano Marzo le quito otro, no te dejaré a ti ni carnero ni ovejita.

Mariano Mendigacha, de Bidangoz (Roncal).

## 147. — PARA HACER CALLAR AL BURRO (AN)

A un molinero no le dejaba dormir de noche el burro, con sus rebuznos. Una vez se presentó donde un abogado a preguntarle qué era lo que podría hacer. El abogado le mostró un fácil remedio. Del rabo le ponía colgado al anocheecer una piedra, y el burro no rebuznaba hasta la mañana siguiente, y el molinero solía dormir en grande.

Andrés Astiz, de Goldaraz.



## 148. — ATSO ANKA-AUSIA



NDRA bat suetean goruetan egoala, gabean gabeen katu bat etorten dakan.

—¡Jesus! —esan eutsan bein senafari—. Katu peste bat gau guztietan agertu ta gonarik gona ibilten data. Bildur bere banaz suetean egoten.

—Neuk egingo donat goruetan gaur gabean, ea katu ori neuri etorten datan ikusteko.

Badago gizona iña ta iña eta suete-goienetik bera badatorko katua. Ateostera yoan ta dirautso:

—¡Gizona ta goruetan!

—¡Katua ta bariketan! —esanaz goru-kirtena yaurtigi ta anka bat ausi eutsen gizon gorulariak katuari.

Uñengo egunean auzoko atsoa erenka-erenka ebilen.

## 149. — AZELAINGO ZUBIA



EGIN batek bere gain artu zuen zubi ori egiteko arazoa. Egin samar zeukanean, ¡blaut!, lur jo zuen. Bigaenez ere asi,

ta giltzarria ezartanietxoan, len bezelaxe erori zan.

Orduan arginak amufatuz itz auek esan zituen:

## 148. — LA VIEJA DE LA PIERNA ROTA (B)

A una mujer, que solía estar hilando junto al fuego, le venía todas las noches un gato.

—¡Jesus! —le dijo una vez al marido—. Todas las noches me viene un gato, y no le puedo quitar de entre mis sayas. Hasta me da miedo el estar en la cocina.

—No hagas caso; esta noche hilaré yo para ver si a mí también me viene el tal gato.

Efectivamente, a poco rato de estar hilando el marido, bajando de lo alto de la cocina, se le aparece el gato. Fuése detrás de la puerta y le dijo:

—Hombre e hilando.

—Gato y charlando.

Y al decir esto, le arrojó la rueca y le rompió una pierna el hombre hiladero al gato.

Al día siguiente, la anciana de la vecindad andaba cojeando.

Celestina Menika, de Lemona.

## 149.—EL PUENTE DE AZELAIN (G)

Un cantero se comprometió a hacer ese puente. Cuando ya estaba a punto de terminarlo, ¡cataplum!, se cayó. Segunda vez empezó la misma labor, pero un poco antes de colocar la última piedra, la llave, nuevamente se derrumbó.

Desesperado el cantero dijo estas palabras:



—Zubi auxe bukatua ikusteagatik, nere anima edozeini emango nioke.

Ufengo aiatsean deabruak lanean asi omen ziran. Arginak eta lagunak baino aldi laburago bear izan zuten ia azkenera eltzeko. Zubi ori amaitzeko zegoela deabruak gau batean kantuz ari omenziran:

Eskuz esku Labaingo aña,

ia akabatu degu Azelaingo zubia.

Ea mutilak, eun ta bat mila gaituk,  
Añi baten paltan gaituk.

Arginak, bere anima aien eskue-tan utzi bear zuela ikusirik, apai-zarengana konjuru bila yoan zan. Apaiza etoñi konjuratzen ta deabru guzi guziak ayenatu zituen.

#### 150.—AZERIA TA BAXERAKETARIA



ZERI batek itsasadar batean alde batetik bertzera yoan nahi zuzun eta baxeraketari bati efan ziakozun:

—Hik eraman nahi banuk, hirur egia eranen desteat.

Gizonak baietz. Ibiltzen asita, azeriak eran zuen:

Lenbizikoa: eranen dik hiri norbaitek gausa noizbait eguna bezain argi dela. Hori ez sekulan. Eguna

—Por ver terminado este puente, a cualquiera le entregaría mi alma.

Dícese que la siguiente tarde empezaron los demonios a trabajar. Necesitaron menos tiempo que el cantero y sus compañeros para llegar casi hasta el fin. Estaba ya el puente casi terminado cuando los demonios empezaron a cantar la siguiente estrofa:

Trabajando mano por mano la piedra  
[de Labain,  
hemos casi terminado el puente de Aze-  
[lain  
¡Ea!, muchachos, somos ciento y un mil  
con sólo una piedra llegamos al fin.

El cantero, viendo que su alma iba a dejar en manos de aquéllos, fué corriendo donde el señor cura a que le exorcizara. Le exorcizó y expulsó y ahuyentó a todos los demonios.

María Marca, de Hernani.

#### 150.—EL RAPOSO Y EL BOTERO (BN)

Un raposo quería ir de un lado a otro, en un brazo de mar; y a un botero le dijo:

—Si tú quieres llevarme, tres verdades te diré:

El hombre respondió que sí. Al empezar a andar dijo el raposo:

—La primera: alguien te dirá que a veces la noche es tan clara como el día. Eso no, jamás. El día siem-



Azeria ta baxerakotaria

El raposo y el botero



beti argiago. Bigařena: etzakala sekulan bihar artio utzi egun egiten ahal dukan lana. Hirurgařena: baxeruketaria, zaragoilak txar tuk; eta ni bezalakoak pasatzen baituk, txar ukhanen tuk.

pre es más claro. La segunda: no dejes nunca para mañana el trabajo que puedas hacer hoy. La tercera: botero, tienes pantalones viejitos; y si tus pasajeros son como yo, viejecitos los tendrás.

Michel Gombault, de Dozazaharre (Garazí).

## 151. — AZOKAN



**A**RTIAR bi erisra, azokara, yoan zirāan bein. Idi, bei, txal, idisko, bigantxa edeřak eta ugari ikusiafen, eurak auřera. Idi ezkeřa gura eben. Buztařian ezker-aldean yoateko idiagaitik esaten da idi ezkeřa.

Bat idoro ebenean, Aratia-bealdeko bategana yota:

—Mutil —itandu eutsan batek—, ęerderaz bākik?

—Eņengokek ondo, ezpaņekik.

—Itandu badā oni or daukan idi ezker ori salgai etedaukan.

Besteak yaube erdaldunari

—*ęEste buey es aquel?* —itandu eutsan.

—*Este es este y aquel es aquel.*

—*ęZer esan dok?*

—Salduta daukala.

Gero zigařotxo bat eřeteko gogoa bai ta zigařorik ezeuken eta erderaz ekianari batek

—Mutil —esan eutsan—: Ik, erderaz dakian ořek, esaioak ea zigařo bat emongo daben.

## 151. — EN EL MERCADO (B)

Una vez fueron dos arratianos a la feria, al mercado. A pesar de ver hermosos bueyes, vacas, terneros, novillos y terneras, ellos iban adelante. Querían un buey izquierdo. Se dice buey izquierdo a aquél que en el yugo va por la parte izquierda.

Al dar con uno, se dirigieron a uno de la parte baja de Arratia y le preguntaron:

—Muchacho, ęsabes castellano?

—Bueno estaría si no supiera.

—Pues pregúntale a éste si tiene en venta ese buey izquierdo.

El otro preguntó al vendedor castellano:

—*ęEste buey es aquel?*

—*Este es este y aquel es aquel.*

—*ęQué ha dicho?*

—Que lo tiene vendido.

Después tenían ganas de fumar, pero no cigarros; y uno de ellos dijo al que sabía castellano:

—Chico, tú, que sabes castellano, dile si nos dará un cigarro.

—Oye: ¿quieres un siarro?

—No, gracias; ya lo tengo para mí.

—¿Zer dinok!

—Azkenengoa eretan daukoala.

—Auxe dok bada: kalamidade utsean gaiagozak gaur.

—Oye, ¿quieres un siarro?

—No, gracias; ya lo tengo para mí.

—¿Qué dice?

—Que está fumando el último.

—Esto sí que es: estamos hoy de desgracia.

Domingo Azkoeta, de Zarátamo.

## 152.—BASAYAUNAREN GANDERAILUA

**I**LHUNATZEKO potxetan Salbatoretik goiti Basayaun bat bizi zuzun. Ganderailu eder bat zuen berak eta iguzkia zelarik iguzkitatzerat atheratzen zuzun eta dir dir egiten zuzun. Artzain batek egun batez, Basayauna han etzelarik, bizkañean hartu eta Salbatore-aldera zeraman. Basayauna, ganderailu edera ebatsi zakotela ohartuz, gibeletik lasterka hasi zenta artzain ohoína abantxu hatzeman ere bai.

Orduan artzaina oihuka hasi zuzun:

—Salbatore yanna, othoi balia zakizkit; present-bat ekhafi nahi dautzut.

Eta ordu berean Salbatoreko zeinua bere baitharik tilin-tilin hasi zen; eta Basayauna urhats gehiago ezin eginez gelditu zuzun; eta artzainari oiñu egin ziakozun.

—Eskeñak emazkik, Salbatoreko yoare zahafa hasi baita.

Eta gero artzainak elizan pausatu zizin.

Handik zombait denboraren bu-

## 152.—EL CANDELERO DEL BASAJAUN (SEÑOR DE LAS SELVAS) (BN)

En las rocas de Ihumatze, sobre la iglesia del Salvador, vivía un Basajaun. Tenía él un hermoso candelero y sacaba al sol, cuando había, y brillaba. Se le ocurrió un día a un pastor apoderarse de él en ausencia del Basajaun; lo cogió al hombro y lo llevaba hacia el Salvador. Dándose cuenta el Basajaun de que le robaron el hermoso candelero, le siguió por detrás, habiéndole casi alcanzado.

Entonces comenzó el pastor a dar voces.

—Señor Salvador: le ruego que me defienda. Quiero traerle un obsequio.

Y en aquel mismo momento, la campana del Salvador empezó de por sí a sonar, tilín, tilín... Y el Basajaun paró, sin poder dar un paso; y le gritó al pastor:

—Da gracias porque ha comenzado a sonar la vieja campana del Salvador.

Y luego reposó el pastor en la iglesia.

Después de cierto tiempo, quisie-



rüan Mendibeafek ganderailu hura beren elizara ekhañi nahi ukhan zizien; eta gizon batek bizkafean ekhartzen züelarik, Haritz-kurutzetarat heltzearekin gehiago ezin higituz gelditu zuzun eta han utzi.

Yin zen gero behi-orgekin bilha, bainan hek ere ezin ereman, utzi egin behar, eta gero gibelerat ereman. Handik urthe batzuren burüan eliza efe zuzun eta ganderailu hura belztu.

ron los de Mendibe traer a su iglesia aquel candelero; y cuando lo traía un hombre al hombro, al llegar a Haritzkurutzeta, quedó sin poder moverse, y lo dejó allí.

Vino después en busca con un carro de bueyes, pero como tampoco éstos pudieron llevarlo, se vieron obligados a abandonar, y luego lo volvieron atrás. Al cabo de unos años, se quemó la iglesia, y aquel candelero quedó ennegrecido.

Michel Gombault, de Donazaharre (Garazi).

### 153. — BEI BATEN EBASLEA



**G**IZON batek bei bat lapurtu zuen. Ógei ta bost urteko Ceutara eraman zuten, an baitegian izateko. Etxean emaztea ta mutilko gaztetxo bat utzi zituen. Ógei ta bost urteak bete zituenean etxe-aldera etoñi ta lenbizi ikusi zuen gauza artalde bat izan zan, gizon gazte baten ardurapean.

—«¿Gure etxeke ardiak otetok?», esan zuen bere barnean.

Berengana urbildurik, artzainari

—¿Norenak dire ardiok? —galde egin zion.

—Joxepa Goñirenak —erantzun zuen ark.

(Ceutatikoaren emaztea zen Joxepa Goñi.)

—¿Joxepa oñen semea alaiz?

—Bai.

### 153.—EL LADRÓN DE UNA VACA (AN

Una vez robó un hombre una vaca y le condenaron a veinticinco años de prisión en Ceuta. Marchó allá dejando en su casa a su mujer y un hijo de corta edad. Transcurrido el plazo de la condena, volvió hacia su casa, y lo primero que vió fué un ható de corderos que estaban al cuidado de un pastor joven aún.

Al verlos, se dijo para sus adentros:

«¿Si será de mi casa este rebaño?»

Cuando se acercó al pastor, le dice —¿De quién es este rebaño?

—De Josefa Goñi —respondió aquél.

(Josefa Goñi era la mujer del que venía de Ceuta.)

—¿Eres tú acaso el hijo de Josefa Goñi?

—Sí.

—¿Aita non dek?

—Baitegian.

—¿Zergatik?

—Beia ebatsi baitzuen lafeti.

—Orain pagatuko ñik lafutik.

—Bai nai badu, neregatik.

Semeari au entzunda pañez joan zan etxera aita. Atalondoan Joxepa opatu zuen ta esan zion:

—Semearekin bertsoetan ari izan naiz, Josepa.

—¡Ogeita bost urte uruti igarota semearekin bertsoetan! ¡Ori da, ori gibela, ori baruna! Etoñi zaitea etxera, gaztañak eta taloa dauzkat eta alkarékin jango ditugu aspal-diko orde.

—¿Dónde está tu padre?

—En la prisión.

—¿Por qué?

—Por haber robado en un jaro una vaca.

—Ahora los pagaré con su cuero.

—Sí, por mí, si lo quiere.

Al oírle hablar así a su hijo, marchó el padre, riéndose, hacia su casa. En la puerta encontróse con Josefa y le dijo:

—He versificado con mi hijo, Josefa.

—Después de veinticinco años que has estado tan lejos, ¿has empezado a versificar con tu hijo? ¡Eso sí que es tener bígado! ¡qué alma! Ven a casa, tengo talo y castañas y los comeremos juntos, que hace tiempo no hemos hecho otro tanto.

Andrés Astiz, de Goldaraz (Imotz).

#### 154. — BIZKAR-BEROKETAN

**R**ÓMERIA-EGUN baten Aita burubako batek, semeak ilunkeran etxean sartzen ikusirik

—Zer! —esan eutsen—. ¿Onen goizetik? Ezaldotsazue inori bizkaña berotu?

—Guk, ez.

—Ea, atzera, bizkaña bat edo bati berotu barik ez etoñi.

—Norbait beroketako, nai ta ezkoa dok norbera ere bero egotea —esanda, sagardotegi baten sartu ziran anaiok eta edan ta edan bete arte gero tíñin-tañan ona ta oña ebiltzan.

#### 154.—CALENTANDO LA ESPALDA (B)

Un padre de familia, de poco sentido común por cierto, al ver que sus hijos volvían al anochecer de la romería:

—¡Qué! —les dijo—. ¿Tan temprano? ¿No habéis acaso calentado a nadie el hombro?

—Nosotros, no.

—Ea, volved y no vengáis sin calentar el hombro a alguno.

—Para calentar a otros, es preciso que uno mismo esté caliente —diciendo, entraron en un establecimiento de sidra los hermanos... y bebieron hasta llenarse, y después anduvieron de una parte a otra tambaleando.



Alako baten agura gordin bat aurkitu eben, nor zan ezekiela; eta berarekin makilaka asi ziran. Aika asi zanean ezagutu zeben agura maki-latua: euren aita. Burubide gaiztoak emoten dituen gurasoak olako zerbait guztiak bear leukô.

Por fin, se encontraron con un anciano fuerte, a quien no conocieron y con él la tramaron, dándose golpes de palos. Cuando empezó a dar ayes, conocieron al anciano apaleado: era su padre. Algo así merecen todos los padres que aconsejan mal a sus hijos

Juan Urrutia, de Guellano (Leniz).

### 155. — BURUSI ERDIA



**G**IZON bat, zafáren lanera-ko ezindua, semearen etxera yoan zan bizi izatera. Seme au ezkon-duta egoan, askazi anditxoa bere baekuan. Bein, eztakigu zegaitik, ala zikotza ta diru-zalégia zalako, ala bere emazte ta semealabentzako duin irabazten ezebalako,

—Aita —esan eutsan guraso zafári—, nik ezin elikatu zaikedaz ta burusi auxe lepoan dozula zoaz atetik ate eskean eta Yainkoa lagun dakizula.

Orduan semetxo zafarenak aitari

—Aita —esan eutsan—, ¿burusi osoa emoten dautsazu aitaitari? Erdiaz bere naikoa dau. Gorde egizu beste erdi ori neuk zeu etsetik bidaldu zagidazaneko.

Mutil zur zoli onen gurasoak, au entzunda, bere aita zafá baíro etsean artu eban.

### 155. — MEDIA MANTA (B)

Un hombre, imposibilitado por viejo para el trabajo, se fué a vivir a casa del hijo. El hijo estaba casado y tenía familia algo numerosa. Una vez, no sabemos por qué, si porque era avaro y demasiado apegado al dinero, o porque no ganaba lo suficiente para la mujer y los hijos, dijo a su padre anciano:

—Padre, yo no puedo alimentaros e idos a mendigar de puerta en puerta, llevando esta manta a la espalda, y Dios os ayude.

Entonces, el mayor de los hijitos dijo a su padre:

—Padre, ¿dais manta entera al abuelo? Le basta con la mitad. Guardad esa otra mitad para cuando yo os despache a vos de casa.

El padre de este muchacho, prudente y resuelto, al oír esto, admitió nuevamente en su casa al padre anciano.

María Josefa Izpizua, de Gabika.

## 156. — EGUÍA TA BIRAOA



ANTXINA eguñak euren kabuz etoñi oi ziran baso ta oianetatik etxëtara. Bein aritz baten adañak alkar bat egin eben eta:

—Goazan urliaren suetera —esanda, bira ta bira, bilin-bilaunka aldatz bëretan, aldatz goretan ozta-ozta; alako baten gura eben etxera eldu ziran.

Egur sendoña atarira elduta mailadian gora igoten asi zanean, atso min-zoñotz bat etoñen mailadian bera. Alkaren añez-aur egozala, egur-txaria batek ¿ezeutsan bada atsoari gona-magala tafat eginda uratu?

Orduan parkamena zer zan inok ezekian ta egur-ziak ezeutsan atsoari parkeskatu. Alperekoa izango zan eskatzea. ¡Ikustekoa zan atsoaren arpegi tximur, asañe ta goñotozkoa! Biraoka asi zan geiagoko bagarik.

—¡Ezaldau eguñek gaurtik aurera zirkin egingo!!

Ordura-ezkero eguía nai dabena ak basora yoan bear izaten dau bila.

## 156.—LA LEÑA Y LA MALDICIÓN (B)

Antiguamente, las leñas, por propio impulso, solían venir de las selvas y bosques a las casas. Una vez convinieron las ramas de un roble, y diciendo:

—Vámonos al hogar de Fulano —y dando vueltas y tumbos en cuestas abajo, poco a poco en cuestas arriba, llegaron, por fin, a la casa que querían.

Cuando la carga de leña llegó al portal y empezó a subir por la escalera, venía escalera abajo una vieja de lengua afilada. Estando frente por frente, ¿no le ocurre a una punta de leña rasgar el vuelo de la saya de la anciana?

Como entonces nadie sabía lo que era el perdón, la brizna no se lo pidió a la vieja. Hubiera sido inútil el que se lo pidiera. ¡Era de ver la cara arrugada, colérica y de odio que puso la anciana! Sin más, empezó a soltar maldiciones.

—¡De hoy en adelante, ojalá no pueda moverse ninguna leña!

Desde aquella fecha, quien quiera tener leña, suele tener que ir al bosque a buscarla.

Referido en Lekeitio por Aurora María de Azkue.



## 157. — EIHERAZAINA

**B**ERHIN eiherazain batek hirur haur zitzin. Hirur haufak elgafekin zirelarik, aita-amak hil zitzazkozién. Beren ontasunak eihera bat, mando bat eta gathu bat zitzién. Eta ontasunak zatitu baitzituzten, batek eihera hartu zizín, bertzeak mandoa, bertzeak gathüa. Gathu-yabea biziki triste zuzun. Gathuak éran ziakozun:

—¿Zer duk hoíen triste?

—¡Ail! ¿Ni hirekin nola bizi ahal izanen nuk?

—Ehiz hi tristena izanen. Egin ezadak boía pare bat.

Oihan baten erdian yauregi bat zuzun eta yauregi hartan yaun bat. Yaun harek gizotso-fama zuzun. Gathua yaun harenganat yóan zen eta éran ziakon:

—Gizotsóa hizala éraiten die.

—Ba, hala nuk.

—Gizotsóak nahi duten irudian yartzen omen tuk.

—Ba, hala duk.

—Ehizala yartzen.

Eta gizotsoa lehoin bezala yaí zen.

Gathüa izutu zuzun eta beíiz éran:

—Ehizala yartzen sagu baten irudian.

Eta gizotsoa sagu bat zirudiela

## 157. — EL MOLINERO (BN)

Una vez, tenía tres niños un molinero. Estando juntos los tres niños, se les murieron el padre y la madre. Sus bienes eran un molino, un mulo y un gato. Y habiéndose repartido los bienes, a uno le correspondió el molino, al otro el mulo y al otro el gato. El dueño del gato estaba muy triste. Le dijo el gato:

—¿Qué te pasa que estás tan triste?

—¡Ay! ¿Cómo podré yo vivir contigo?

—No serás tú el más triste. Hazme un par de zapatos.

En medio de un bosque había un palacio, y en aquel palacio, un señor. Tenía fama aquel señor de que era duende. Se fué el gato a aquel señor y le dijo:

—Dicen que eres duende.

—Sí; así lo soy.

—Dicen que los duendes se ponen en cualquier forma.

—Sí; así es.

—¿A que no te pones en figura de león?

Y el duende se puso en figura de león.

Se espantó el gato y le dijo nuevamente:

—¿A que no te pones en figura de ratón?

Y el duende se puso en tal forma





yafi zen. Ordüan gathüak gainera yauzt eginik itho zizin.

Eta gero, bere nausia ekhafarazirik, yauregian elgañeki bizi izan zitzun.

158. — ELTZABURUKO ERENA

**E**ZTAKIT zeinek ekañita, gizartean (Napañoako ibaren baten beintzat) bari au zabaldua izan dan: impernuko zola (bea) buztinazkoa dala. Eltzaburuko érenak bari au ekañi aleban. Berari dagokiozan gauzarik iru dakiguz: gaiztoa zala, anka bata (guk légez) aragizkoa ta bestea burdinazkoa ebazala; irugañena, il zanean infernura eroan ebela.

An, batetik bestera ibiliaz, zola (bea) bere anka burdinazkoaz zulu egiten eieban; ta gaizkinak alkañen artean itundu ta érena andik oildu ta ataratea erabagi eben.

Geroagoko urte askotan Eltzaburun bizi izan eizan. Aspaldion ezta bere bañirik.

Pedro Arbila eritzon Ultzamar bati ikasi neutsan ipuintxo au ta bere eus kalkian artu beañean, eztakit zelango burutasunez, bizkaieraz ezafi nebazan berak emoniko itz guztiak (zola, ez, besteak).

que parecía un ratón. Entonces, lanzándose el gato sobre él, le ahogó.

Y luego, haciéndole venir a su amo, vivieron juntos en el palacio.

Michel Gombault, de Donazaharre (Garazi).

158. — EL COJO DE ELTZABURU  
(AN, B)

No sé quién ha propalado en la sociedad (por lo menos en algún valle de Nabarra) esta noticia: que el piso del infierno es de barro. Parece que la trajo el cojo de Eltzaburu. Sabemos tres cosas que le corresponden a él: que era malo que un pie tenía (como nosotros) de carne y el otro de hierro; tercero, que cuando murió le llevaron al infierno.

Allí, andando de una a otra parte, dice que agujereaba el piso con su pata de hierro y que, reunidos en consejo los demonios, acordaron arrojarle de allí.

Posteriormente, dicen que vivió muchos años en Eltzaburu. Hace tiempo que nada se sabe de él.

Este cuentecito aprendí de un ulzamez llamado Pedro Arbilla, y en lugar de tomar en su dialecto, no sé por qué razón, tomé en bizkaino todas sus palabras, excepción hecha de *zola*, piso.

## 159. — ELUÑA TA SORGINAK



ENBIZIKO eluña egin zuenean sorginak ikaratuta zulora yoan ziren. Aitar bat, zazpitan eun urte zituen aita egoten zen zulo artan, itsutua. Gauza zuri bat zerutik erori zela esan ziotenean,

—Atera nazazute airean kanpora —esan zien zulokoai—, eta balanka batekin jaso nere betazal bat, gauza berri ori ikusi al izateko.

—Galduak gara, esan zuen zar onek eluña ikusi zuenean.

—Galduak gara, yaio da Jesus.

Bera ta bere lagun guziak, zar ta gazte, zulora mañaxkaka yoan ta an il ziren.

## 160. — EMAGIN BAT EILALAMI-ARTEAN



BAURPEAN eilalami bat fan ze emagin bila eta berekin erman arazi zue. Bidean zazen bezala, eilalamiak emaginari eñan zako:

—Beira, saritako etzanala eskatu txarantxa baizik. Bertze zernai eskatzen badun, ikatz itzuliko dun. Etxera itzultzean eztezanala gibela begiratu.

Eñota-baltsara eñegatu zirenean ura lekutu ta bidea idortu zue eila-

## 159.—LA NIEVE Y LAS BRUJAS (AN)

Cuando por primera vez nevió, las brujas, asustadas, se escondieron en una cueva. Habitaba en ella un anciano de setecientos años, ciego ya. Cuando las brujas le contaron que del cielo había caído una cosa blanca, les dijo:

—Levantadme y sacadme fuera en volandas y levantadme un párpado con una palanca, para que pueda yo ver esa cosa nueva.

Al ver la nieve exclamó el viejo:

—Somos perdidos, ha nacido Jesús.

Todos ellos, jóvenes y viejos, se fueron a la cueva dando gritos y allí murieron.

Andrés Astiz, de Goldaraz (Imotz).

## 160. — UNA PARTERA ENTRE LAMIAS (AN)

En Abaurrea Baja fué una lamia en busca de partera y la llevó consigo. Según iban andando, en el camino la lamia dijo a la partera:

—Mira: por retribución no pidas otra cosa que carda. Cualquier otra cosa que pidieras, se convertiría en carbón. Al volver a casa, ni mires hacia atrás.

Al llegar a la antépara del molino, la lamia separó el agua y secó el



lamiak eta biak itufi-begiko zilora sartu zire.

Emagina bere txafantxareki etxera itzuli ze ta etxera sartzean ataria ersteko aurpegia itzuli bear zue; ta ordnan aitzukaldia norbaitek aurtiki zako ta ariak atarian zilo andi bat egin zue. Zilo gartarik geroko urte anitzetan gatuak eta txakurkoak, eilalamien beldurik gabe, goiz arats ebiltzen zire.

camino y las dos entraron, se metieron en el agujero del manantial.

La partera volvió a casa con su carda y al entrar en ella tuvo que volver la cara para cerrar el portal; y entonces alguien le lanzó una pedrada (*sic*), y la piedra hizo un gran agujero en el portal. Por aquel agujero muchos años después andaban mañana y tarde, sin miedo de lamiás, gatos y perrillos.

Celestina Bidondo, de Abaurrepea (Aezkoa).

161. — EMAZTE BAT ETA XAXTREA



MAZTE bat anixko xur eta ornikatu zen. Bear zion egun xaxtre bat xoxtra. Xaxtrearekin zer egunez fanen zen komenitruk, tenprarik gal elezan, bezperatik drezatu ztion apario guziua. Biramen goxan xaxtre bere ordiuan fan zen. Desayunoa emon zaun. Desaiunatu eta eran zaun:

—Askaltu nai baduk, drezu diok.

—Ein —eran zaun xaxtreak.

Askaltu eta beriz eran zaun:

—Bazkaltu nai baduk, bazkariare drezu dakadak.

—Ein —eran zaun xaxtreak.

Bazkaltu eta aigaria ere drezu zakala eran zaun eta txikigatik aigal zokela.

—Ein —eran zaun xaxtreak.

Aigaltu eta xagi zen xaxtreá eranéz:

161.—UNA MUJER Y EL SASTRE (R)

Una mujer era muy agarrada y ruin. Un día necesitó llevar a su casa a un sastre a coser. Convenido con el sastre en qué día iba a ir, aderezó de víspera todas las refecciones (comidas) para que no perdiese tiempo. Al día siguiente, fué el sastre a su hora. Le dió el desayuno. Después de haber desayunado le dijo:

—Si quieres almorzar, está presto.

—Dame —le dijo el sastre.

Después de almorzar, le volvió a decir:

—Si quieres comer, la comida la tengo también dispuesta.

—Dame —le dijo el sastre.

Después de comer, dijole también que aun la cena la tenía ya aderezada y que por poco podía cenar.

—Dame —le dijo el sastre.

Después de haber cenado se levantó el sastre diciendo que él,

—Arek aigaltuz gero eziola fiorentako xostan.

Artu aitzurak besapean eta etsera fan zen, tripa onki beterik. Baratu zen emazte zuria lan bilorik egin bage, gastu guzina eginik.

habiendo ya cenado, no solfa coser para nadie.

Cogió las tijeras bajo el brazo y se fué a casa, con la tripa bien llena. La mujer se quedó sin pizca de trabajo, habiendo hecho todo el gasto.

Mariano Mendigatxa, de Bidangoz (Roucal).

## 162. — ERBIDUNA



PAIZ batek, eguratsa ar-tzera zijoala, baseñitar ezagun bat opatu zuen bidean ta oi bezala: «Lanean ari gara?», edo

olako zerbait esanda,

—Jauna —esan zion baseñitarak—, arestian erbi bat bidali diot etxera.

—¡Gizona! Mila esker —esanez, bi pezetako dirua eskupean eman zion.

Etxera yoan zanean, amari apaizak:

—Gaur apari edeña, ¿e?

—Beti bezalakoa —erantzun zion amak.

Biamonean, eguerdirako erbia gatzun-askan gorde zuelakotz, amabiak-aldean sukalderatetxo bat eginda, galde an zuzendu zion:

—Gaur bazkari ona, ¿e! —eta amak:

—¿Zergatik diozu, Martín? ¿Atzo apari edeña, orain bazkari ona?

(Guraso gutik itz egiten dio seme apezai ika, zuketan geienak.)

## 162. — EL DE LA LIEBRE (AN)

Encontróse un sacerdote, al ir de paseo, con un conocido aldeano, y al saludarle con la consabida frase: «¿Estamos trabajando?», o con otra parecida, le dice el aldeano:

—Señor, hace poco os he enviado a casa una liebre.

—¡Hombre! —y diciendo—: Mil gracias —le dió de propina una moneda de dos pesetas.

Cuando entró en casa el sacerdote dijo a su madre:

—Hoy buena cena, ¿verdad?

—Como la de siempre —le contestó la madre.

Al día siguiente, en la suposición de que su madre había puesto en salmuera la liebre, se acercó a la cocina a eso de las doce y, dirigiéndose a la madre, le preguntó:

—Hoy buena comida, ¿verdad?

Y la madre:

—¿Por qué decís eso, Martín: Ayer buena cena, hoy buena comida?

(Pocos padres hablan a hijos sacerdotes tuteando, los más (les tratan) de vos.)





—¿Ezalzuen alakok erbirik atzo bidali?

—¿Nora? ¿Gurera? Ezta gorain-tzirik ere.

Añatsaldean aueguneko bidean barna zijoan apaiza. Aitzurlariaren-gana berariz yoan zen eta galde au egin zion:

—¿Eztenduan atzo esan erbia bidali zenidala?

—Bai, jauna. Sasi-artetik irten zen eta eñan nion: oa apaizarengana.

—¿No envió ayer Fulano alguna liebre?

—¿A dónde? ¿A nuestra casa? No, por cierto; ni siquiera recuerdos.

La misma tarde, iba el buen sacerdote, por el mismo camino de la víspera. Fué expresamente donde el aldeano y le hizo esta pregunta:

—¿No me dijiste ayer que me enviaste una liebre?

—Sí, señor; de entre zarzas salió la liebre y le dije: Vete a casa del señor cura.

Referido por Manuela Ernardorena, ¿en Bera?

### 163. — EROSLA BAT



ÁTIAR batek Bilbon txal bat salduta topina bat erosi eban. Lepoan ekañela, Zubibarín, sorbalda bateti bestera aldatue-

ran, iru anka eukazala oartu zanean,

—¿E! —esan eutsan—. ¿Ik iru anka ta nik bi; ta neu oinez ta eu añelep! Etoñiko az gura badok. Zeanurin bizi nok, Elizaldean.

Eta bertan itzi eban burdinazko tresnatzara.

Etsera eldu zanean, emazteari

—¿Etoñi dā lapikoa? —itandu eutsan—. ¿Iru anka daukazan topina eder bat ezta eldu?

—Ez.

Biamonean bañiro Bilbora yatsi zan gure gizona, bezperako den-dara. Sartu ta batera

### 163. — UN COMPRADOR (B)

Un arratiano, después de vender en Bilbao un ternero, compró una marmita. En Puente Nuevo, al cambiarla de un hombro al otro, observó que tenía tres patas, y le dijo:

—¿Cómo! ¿Tú tres patas y yo dos pies, y yo a pie y tú a horcajadas! Ya vendrás, si quieres. Vivo en Zeanuri, junto a la iglesia.

Y abandonó allí al gran cacharro de hierro.

Cuando llegó a casa, preguntó a la mujer:

—¿Ha llegado el puchero? ¿No ha llegado una hermosa marmita que tiene tres patas?

—No.

Al día siguiente, nuevamente bajó nuestro hombre a Bilbao, a la misma tienda. En cuanto entró en ella, cogió una marmita, diciendo:



—Amen dago nire lapikoa —esanda, bati oratu eutsan.

Saltzaileak gedar. A bertan itzi eraginda, Zubibafira bidali eben gizona topina-bila. Batari itandu, besteari galde, alpefeokoak izan ziröan bere aleginak eta esku utsean yoan zan etsera gure Eri.

164. — EREGE TA XAPELGINA



**E**REGE-ILTZALEAK estira gure egunetan sortuak. Bi urtez lanean arituz xapel bat egin zuen norbaitek eregerendako. Gero bere ezagun bat deitu zue, eñanez:

—Tori xapel au, eramán zak eregerengana ta sañarazi ezok xapel ori ta artzak sos ebek.

Badoa gizon gori ta yoan ta yoan eregetegira eldu ze. Eregalu batez nola eldu zen eñan zio Efegeri:

—Para zak egoñek (1).

Besteak ezetz, eregerendakoa zola.

—Ezar zak, mutil, ezar zak egoñek (1).

Mutilak ezari zue ta berealaxen zilañezko bi oratz luze logunetatik sartu ta gurutzatu zioite burua ta ilik gan berean erori ze.

(1) Egoñek.

—Aquí está mi puchero.

El vendedor gritó. Después de obligarle a que lo dejara allí, envió al hombre a Puente Nuevo en busca de la marmita. Preguntó a unos y otros; pero fueron inútiles sus empeños, y con las manos vacías fué a casa nuestro jebo.

Domingo Azkoeta, de Zarátamo.

164. — EL SOMBRERERO Y EL REY  
(AN)

Los regicidas no han nacido en nuestros días. Un sombrerero, trabajando dos años hizo un sombrero para el rey. Después mandó llamar a un conocido suyo, diciéndole:

—Toma este sombrero, llévaselo al rey, haz que se lo ponga y toma estos cuartos.

Se va este hombre y andando andando llegó a la residencia del rey. Dijo al rey cómo llegó con un regalo:

—Póntelo tú mismo.

El otro (dijo) que no: que era para el rey.

—No, hombre; póntelo tú mismo.

El muchacho lo puso en su cabeza y en seguida dos largos alfileres de plata se le introdujeron por las sienes y le cruzaron la cabeza, y cayó allí mismo muerto.

Aprendido en Mezkiria, de Erro.

## 165. — ERRELARI BAT (B)



ARRATIAN, beste ibar askotan legez, komentu txiki baten bikariotzat fraide zar bat egoan, bere komentutik matxinada baten ondoren aterarikoa. Lukuferu itzala zan, irapazten euana gorde ta gorderikoa eralten ezekiana. Errelaria zan bera, zigañozailea. Ezeuan, baiña, bat bere arean erosten.

Aratsalderaezkero palatuginen ebilen bategana yoan oi zan egunean egunean. Baseñitak urundik ikusi eban aratsalde baten ta

—Gaur eztauat emongo bada —zinoan bere baiurako.

—¿Kaisio! ¿Badaragoiok?

—Bai, badaragoiot.

Beste zerbait alkañi esanda gero,

—¿Tabako-ori puska bat ezetadukak —itandu eutsan.

—Utxi (*sic*) neutsan.

—¿Fumateari utxi dautsala?

—Fumateari ez, emoiteari.

## 166. — ESKRIBAUA TA EROTARIA



ESKRIBAU batek bere ezagun erotari bati, adaña yoteaíen.

—Zerura erotaririk eztok faten —esan eutsan. ¿Zegaitik eteda?

—Nik eztixot asko faten dirala, baina bat beintzat sartu zan bein.

## 165. — UN FUMADOR (B)

En Arratia, como en otras muchas vegas, estaba de vicario en un pequeño convento un fraile anciano, salido de su convento después de una insurrección. Era muy tacaño, que guardaba lo que ganaba, y lo guardado no gastaba. Era él fumador, aficionado al cigarrillo. Sin embargo, no compraba ni uno siquiera.

Al llegar la tarde, iba cada día donde uno que se ocupaba en hacer vallados. Una tarde, vióle el aldeano de lejos y dijo para su capote:

—Pues hoy no te los daré.

—Hola, ¿trabajando, eh?

—Sí, ya trabajo.

Después de decirse alguna otra cosa, le preguntó:

—¿No tienes acaso un poco de tabaco?

—Ya lo dejé.

—¿Que has dejado de fumar?

—De fumar, no; de dar.

Domínguez Azkoeta, de Zarátamo.

## 166. — EL ESCRIBANO Y EL MOLINERO (B)

Un escribano, por burlarse de un molinero conocido suyo, le dijo:

—Ningún molinero suele ir al Cielo. ¿Por qué será eso?

—No diré yo —contestó el molinero— que vayan muchos; pero por



Funtziño andixak egitea erabagi eben. Onetarako eskribau bat bear zan. Bere bila asi ziran jo ara ta jo ona. Bakar bat ezeben aurkitu.

lo menos uno sí entró una vez. Dispusieron hacer grandes funciones. Para ello hacía falta un escribano. Anduvieron buscándole de ceca en meca. No encontraron ni uno solo.

Juan Urrutia, de Leniz, barrio de Guellano.

## 167. — EUTSI TA TATI



BADE batek bere sakristaia Bilbora agindu euan intzentsutan. Bide guztian yoan sakristaia

—Intzentsua, intzentsua, intzentsua —esaten.

Bilbon saferan gizon bat aurkitu euan, lepoa bete abarka saltzen ebilcla. Berari orduan,

—Mutilak, gogoratu dakon, jarek deroak lepokada abarkaa!

Gero lengo berbäa aitzu dakon ta

—Abarkäa, abarkäa, abarkäa, —esaten eragoion.

Alango baten sartu zan dendan.

—¿Zer bear dozu? —itandu eutsen.

—Abarkäa —esan eutsan saltzailari.

Ekañi eutsan bat.

—Au ez.

Andi goa gero.

—Au bere ez.

Andi ta txiki dendako geienak erakutsi eutsazan. Ezetz ta ezetz ta ezetz.

—¿Zer gura dok bada? ¿Zelangoa dok gura doan tresna ori?

## 167. — OFRECER Y NO DAR (B)

Un sacerdote envió a Bilbao a su sacristán en busca de incienso. Todo el camino iba el sacristán diciendo:

—Incienso, incienso, incienso.

Al entrar en Bilbao, encontró un hombre que andaba vendiendo abarcas, teniendo el hombro lleno de ellas. Entonces se le ocurrió:

—¡Chicos, qué carga de abarcas lleva aquél!

Después se le olvidó la palabra anterior e iba diciendo:

—Abarca, abarca, abarca.

Por fin, entró en la tienda.

—¿Qué necesita usted? —le preguntaron.

—Abarca —le dijo al vendedor.

Le trajo una.

—Ésta, no.

Luego una mayor.

—Tampoco ésta.

—A ése que va ahí, échale el lazo.

—¿Cómo he de echarle el lazo? Su  
vestidura está hecha con hilo de Na-  
vidad.

Es muy semejante a esta conver-  
sación una que otras dos lamias tu-  
vieron en Murelaga (B):

—¡Oh, tú, la de Karache!

—¿Qué quieres tú, la de Arlabán?

—A ese hombre que viene ahí, en  
el camino, ponle el lazo.

—Ese tiene puestos por su mujer  
hilo de Navidad y sérpol.

El primer diálogo procede de labios de mi madre; el segundo se le oí a María Martina Maruri, fecunda colaboradora de Murelaga. Puede verse en el tratado de supersticiones (dentro de esta obra de nuestra Literatura popular), lo que suponía para las Lamias ese hilo de Navidad de que ahí se habla.

## 197. — LANBADEROKO APALTIARA



LANDABEÑO deritzaion etxalde batera, Amaiurko uritxoan, lamia gaue-ro etortzen zen eta sutondoan yañi, yauntziak goraxko zituela. Beroaldi bat artuondoan etxeko andreari zartain-zukua eskatzen zion. Zartain erdi oriotan ogi-papuriak zeatuz egiten zen zuku au. Etxeko andreak, gastuak iziturik, senaari gertatzen zitzaiona yakinarazi zion; eta unek inardetsi zion andreari:

—Gaur ni geldituko naun.

Andrearen zaiak yauntzi, kuluan lioa ezañi ta ardatza eskuan zuela asi zen iruiten. Lamia tori zen ta eñan zion.

—¿Nor aiz i?

—Ni nor nere buru —inardetsi zion iruileak.

—Atzo piririn piririn, gaur aldiz purdukun purdukun diarabilna ardatz ori.

Iruileak zartainean orios gertatu zuen ta irakiten asi zenean aurpegira yaurtiki zion lamiari. Lamia aurpegia eferik, mañumaka asi zen. Lagunak etori zitzaizkon eta eñan:

—¿Nork zer egin daun?

—Nork nere buru.

—Ik ere buruari egin badion, nori zer nai dion? —eñanez oro gan ziren.

## 197. — EL COMENSAL DE LANDABERRO (AN)

Hay en la pequeña villa de Maya un caserío llamado Landaberro, al cual solía venir cada noche y se sentaba junto al fuego una lamia; teniendo algo levantados sus vestidos. En cuanto entraba en calor, pedía a la dueña de la casa sopa de sartén. La tal sopa se hacía desgranando migajas de pan en media sartén de aceite. La dueña, espantada del gasto, hizo saber a su marido lo que le ocurría, y éste respondió a la mujer:

—Hoy me quedaré yo.

Se vistió las sayas de la mujer, puso lino en la rueca, empuña el huso y empezó a hilar. Vino la lamia y le dijo:

—¿Quién eres tú?

—Yo *nor nere buru* (... yo mismo) —le respondió el hilandero.

—Ayer hilabas, *piririn-piririn* (finamente), hoy, en cambio, mueves ese huso (haciendo) *purdukun-purdukun* (toscamente).

El hilandero preparó aceite en la sartén, y cuando empezó a hervir, se lo arrojó a la lamia a la cara. La lamia, con la cara quemada, empezó a dar bramidos. Acudieron a ella sus compañeras y le dijeron:

—¿Quién (y) qué te ha hecho?

—*Nor nere buru* (Mi persona).

—Si tú te has hecho a ti misma, ¿a quién echas la culpa? —diciendo esto, se le fueron todas.



Andik aitzina etzan Lamia hura  
Landabeiora geiago itzuli.

De entonces en adelante, ya no  
volvió más aquella lamia a Landa-  
berro.

Aprendido en el Baztán, de labios de  
don Cruz Goyeneche, hijo de Elbetea.

198.—LENBIZIKO IGIATAIA EZKUÁAN

198.—LA PRIMERA HOZ DE EZKU-  
RRA (AN)

**E**ZKUÁÁK aintzina bu-  
ruxeak eskuan zituela  
yoaten ziran gari-eba-  
kitzera. Norbait agertu  
zitzaien bein igitai ba-  
tzuk saldu nairik. Eri guzia batzafean  
bildu zan. Bat erostea erakabi zuten.  
Bizkoñenari igitaia eman zioten eta  
bere atzetik yoan ziran beste guziak  
zer zan ikustera.

Igitatzen asi ta laxter eskua ebaki  
zuen gizonak eta tresna zoñotza ari-  
ka aurtiki zuen. An zan gizon baten  
lepora erori zan ta kafasiz zijoan  
gaizoa, igitaia kentzeko ta kentze-  
ko eskatzen zuela. Asko etziran azar-  
tu urbiltzen ere. Batek ofegatik esan  
zuen:

—¿Kendu? ¿Kendu? Nik kendu-  
ko zioat.

Igitaiari kirtenetik oratu zion eta  
poliki-poliki berarengana tiratuz le-  
poa kendu zion gizonari.

Los naturales de Ezkurra antigua-  
mente iban a segar trigo con tijeras  
en mano. Alguien se presentó a ellos  
una vez, queriendo venderles unas  
hoces. Todo el pueblo se juntó en  
asamblea. Resolvieron comprar una  
hoz. Pusieron la hoz en manos del  
más vivo y todos los demás fueron  
detrás de él a ver lo que era.

A luego de empezar a segar, cortó  
el hombre la mano y arrojó el afi-  
lado instrumento a pedradas. Cayó  
en el pescuezo de un hombre que  
estaba allí y el pobre iba gritando  
que le quitasen, que le quitasen la  
hoz. Muchos no se atrevieron ni si-  
quiera a acercarse. Uno, sin embar-  
go, dijo:

—¿Quitar? ¿Quitar? Yo se lo qui-  
taré.

Agarró del mango a la hoz y ti-  
rando poquito a poco hacia sí, le  
cortó la cabeza al hombre.

Aprendido en Larraun.



Lembiziko igitala

La primera hoz





## 199. — MAIATZEKO EGUN LUZEA



**O**RBAIZETAN senar-emazte gazteak eta senafaren ama bizi zire. Amagi-areba-erainak betiñi izaten zire asarez izka. Amak semeari bere emaztea aufer andi ta zurupazale bat zela eraten zako. Etxeko giltzeak ere gazteari ekendu zitzaizko. Zafak usten zituen-boteilak gaztearen goatzepean estaltzen zitue berak; eta gara semea ermanez.

—Beira —eraten zako—, beira ire emaztea nolakoa dukan.

Senafak etzezake golakoik sinets. Bein maiatz-egun batez, aloñera fan ze emaztea baino zaloiago ta aritzkaxko batera iganik estali ze. Iduzkia goraka zela, erainak begiratu zako iduzkiari eta eran zue:

¡Maiatzeko egunaen luzea!  
 ¡Ene tripako ertzeen gosea!  
 ¡Etxera fan ta alik ere banu bakea!

Senafa, gau entzunik eta egun guziko lana ikusirik, etxera fan ze. Ama zanpatu zue, giltzeak ekendu ta emazteari eman zaizko.

## 199. — DÍA LARGO DE MAYO (AN)

Vivían en Orbaizeta unos jóvenes esposos y la madre del marido. La suegra y nuera siempre se ocupaban en reñir. La madre solía decir al hijo que su esposa era una grandísima floja y bebedora. Aun las llaves de casa solía quitárselas a la joven. La vieja ocultaba bajo la cama de la joven las botellas que ella vaciaba, y llevando allá al hijo:

—Mira —solía decirle—, mira de qué clase es tu mujer.

El no podía creer tal cosa. Una vez, en cierto día de mayo, fué a la heredad más de prisa que la mujer, y subiendo a la copa de un árbol, se ocultó. Estando el sol algo arriba, la nuera miró al sol y dijo:

¡Oh, qué largo el día de mayo!  
 ¡Qué hambre la de los intestinos de mi  
 [vientre!  
 ¡Si aún así, yendo a casa tuviera paz!

El marido, al oír esto, y viendo el trabajo de todo el día, se fué a casa. Zurró a la madre, le quitó las llaves y se las dió a la esposa.

Petra Arotzarena, de Abaurrepea (Aezkoa).

## 200. — MAISU GUZTIEN MAISUA

200. — EL MAESTRO DE TODOS  
LOS MAESTROS (G)

**U**ESUCRISTO ta San Pedro eldu ziran-urtxo batean peñatzaile bat bizi zan, maisu guztien maisua esaten ziotena. Berarengana biak elduta gaizki artu zituan peñatzaile añaok. Jesukristok mando bat peñatzeko baimena eskatu zion. Sakeletik aizto bat aterata txokoe-tako zaiñak ebaki ziozkan zaldia. Zaldia erori egin zan. Jesukristok orduan lau peña (gaila) sutan goritu zituan ta peña gorituok zaldia txokoetan ezari ta agoz aize emanaz zaldia bizkor ta peñaturik jaiki zan.

Alde egin zutenean, peñatzaileak beste ainbeste egin nai zuen. Zaiñak ebaki, mandoa luñera erori, peñak goritu, aize eman, Jesukristok bezela egin zuan ark ere; bainan alpeñik.

Orduan peñatzailea Jesukristo ta San Pedroren atzetik ibiltan asi zan.

—Añen bai añen eruki zaite nitzaz.

Eruki izan zan bai ta gero bi beatz kopetan peñatzaileari ezarita, Jesukristok esan zion:

—Maisu guztien Maisua badakizu orain zein dan.

En una pequeña villa, a la que Jesucristo y San Pedro una vez llegaron, vivía un herrador a quien le llamaban el maestro de todos los maestros. Llegaron los dos donde él; los acogió mal el orgulloso herrador. Jesucristo pidió permiso al herrador para herrar un mulo. Sacó de su faltriquera un cuchillito, y con él le cortó las venas de las patas al animal. Éste cayó. Entonces Jesucristo calentó cuatro herraduras al fuego y las aplicó en las patas al mulo y soplándole con la boca se levantó el mulo sano y herrado.

Cuando Jesucristo y San Pedro salieron de allí, quería el herrador hacer lo mismo. Cogió un mulo, le cortó las venas, cayó el mulo a tierra, puso las herraduras candentes, se las aplicó al animal, le dió aire; en fin, hizo él todo cuanto había hecho Jesucristo, pero en vano.

Entonces fué el herrador tras Jesucristo y San Pedro diciendo:

—Tened piedad de mí, tened piedad.

Sí, verdaderamente tuvo misericordia de él, pero poniendo dos dedos en la frente al herrador, le dijo Jesucristo:

—Ya sabes ahora quién es el Maestro de todos los maestros.

Manuel Antonio Arruebarrena, de Ataun. (Cfr.: *Le Maître marichal*, de Cerquand, *Bulletin de Pau*, pág. 245).



## 201. — MANDATU IRUKOITZA



**N**ESKATO —esan eutsan ugazabak otsein bati—: aor iru lauko. Ekarzan lau marairen *uger*, beste lau marairen *ez uger* ta beste ainbesteren *ai*.

Badoa neskatoa ugazabaren agindu onek egitera ta lauko batez kortxoa erosi eban, bigaíren laukoaz berun-zati bat, irugaírenaz buruko oíatz luzea. Etxera eldu zanakoxe aska bat urez erdi bete ta ugazabari an eukazala, esan eutsan, an eukazala bere eroskinak.

—Ea ikusi. ¡Non donaz?

—Aor dabil uretan lau marairen *uger* —esan eban kortxoa askara yaurtigita—. Berun-zatia yaurtigiz —aor lau marairen *ez uger*.

—¡Irugaíena non don bada?

—Egon bein.

Papaíeko zapitik atara ta oíatz luze buru andia erakutsiaz, istaíetik sartu eutsan ugazabari.

—Ai, ai, ai —zinoan ugazabak.

Eta otseinak ifibaíeka zirautsan:

—¡Lau maraian erosteko *ai-rik* asko ezalda?

## 201. — TRIPLE ENCARGO (B)

—Muchacha —le dijo un señor a su criada—, ahí tienes tres cuartos y con ellos compra tres cosas: *nadar*, de cuatro maravedíes; *no nadar*, de otros cuatro, y *ay*, de otros tantos

Fué la muchacha a cumplir estos encargos de su amo y compró un corcho con el primer cuarto, con el segundo un pedazo de plomo y con el tercero un alfiler largo. En cuanto llegó a casa puso un balde con agua y llamándole a su amo le dijo que allí tenía sus compras.

—Vamos a ver, ¿dónde las tienes?

Entonces la muchacha, tirando al cubo el corcho:

—Ahí —dijo—, ahí anda en el agua cuatro maravedíes de *nadar* —y arrojando el plomo—; ahí otros cuatro de *no nadar*.

—¿Y el tercero, dónde está?

—Espere usted un poco.


Y sacando del pañuelo del pecho el alfiler largo de cabeza grande le metió en la pierna a su amo.

—¡Ay, ay, ay! —gritó éste.

La muchacha contestó con sorna:

—¿No es acaso bastante *ay* para comprar por cuatro maravedíes?

Domingo Arkoeta, de Zarátamo.



Mosñairen nigafak

Las Lágrimas de Mariana



## 202. — MAÑAÑIREN NIGAÑAK



IBEBUKO efetor bat predikuz ari zen egün batez. Mañañi zeritzaion atsoño bat nigar mañaskaz egon zen prediku bitarte guzian. Azkarki mintzatu zen apheza (lau kintaleko gizona beitzen) gogor entzuliak hartuz. Mañañi xipaka nigatez hurtu(r)ik ikusi züzün. Etxera heltu zenian gelariari Mañañiren keta yoaiteko eñan ziakozün, berarekila bazkalarazteko. Lotsaz heltu zen Mañañi, lotsaz mahaiñian yafi ere.

Aphezak:

—¿Zertako egin düzü, Mañañi, hain beste nigar?

Mañañik etzian eñan nahi. Aphezak ardua azkarki eman zion. Bazkal eta beñiz galta egin zeraukon.

Mañañi arduaz bizkorxiago yafita.

—Yauna, asi zen eñaiten, ene astua aurtemin erori zitazün. ¿Badakizia?

—Bai.

—Lephoko ezufa autsi zitzeion.

—Baita. ¿Domaja!

—Ta hil züzün.

—Dolügarí düzü, Mañañi, biziki dolügarí.

—Ta egün, zure prediku azkaña entzuten niagozularik, uste nüzün, yauna, ene astua mañaskaz hari zela ta nik nüigar.

Etxetik berehala athera zien jaun efetorak.

## 202.—LAS LÁGRIMAS DE MARIANA (S)

Predicaba un día un párroco de Zuberoa. Mientras duró el sermón estuvo llorando amargamente una ancianita llamada *Mañañi* (Mariana). El sacerdote habló reciamente (como que era hombre de cuatro quintales de peso), tratando duramente a los oyentes. Vió a *Mañañi* que se derretía a lágrima viva. Cuando llegó a casa, encargó a la llavera fuése en busca de *Mañañi* para invitarla a comer con él. De miedo, llegó Mariana y de miedo sentóse a la mesa.

El sacerdote:

—¿Por qué habéis llorado tanto, *Mañañi*?

*Mañañi* no quiso decirselo. El sacerdote le dió vino en abundancia. En cuanto terminaron de comer, hizo le aquél la misma pregunta.

Mariana, ya más animosa, gracias al vino, empezó a decir:

—Señor, hace poco se me cayó mi burro. ¿Lo sabéis?

—Sí.

—Se le quebró la nuca.

—También. ¡Lástima!

—Y murió.

—Es sensible, *Mañañi*, muy sensible.

—Y hoy, estando oyendo vuestro vigoroso sermón, creía, señor, que mi burro rebuznaba, y yo, venga llorar.

Inmediatamente la sacó de casa el señor rector.

Oído en Zuberoa, de labios de una hija de Ligui-

## 203. — MARI URÁKA

**B**ESTE izenez Anbotoko damáa. Zazpi urte Anboton ta beste zazpi Oizko koba baten egoten da. Lazkaokoa eida be-  
rau. Neba bat eukan, abade zan bera. Mari Uráka gaztetxo zala, bere amak safi askotan koba bateko andra bat-  
egana eroaten eban elizarako egun-  
etan. Aitak

—Mari, oa elizara —esanañen, amak beti arzulora, kobara beti ero-  
aten eban alabatxoa.

Neba abadeak elizara etzala joa-  
ten jakin ebanean, burdi baten sartu  
ta loturik elizpera eroan eban. Sa-  
kristeiarra estola-bila zan-artean, be-  
re afeba gaiztotua su ta gar bur-  
dian bertan aidean joan zan. Ordu-  
raezkero or dabil Mari Uráka Oiztik  
Anbotora, Anbototik Oiza.

204. — MARTXOKO OILARA TA EILA-  
LAMIAK

**M**ARTXOKO ilabeteen etxe-  
tik abreñ edanáztera  
estudiante bat atra ze.  
Edangiotik itzulita etxe-  
ra eldu zenean, beldur-  
tu ze, eilalamiak arapatuko otezuten  
eta bñitzakie oilarak kantatu ezkeroz  
eilalamiak etzakikiola eskua ezai,  
erñ zue:

## 203. — MARI URRACA (B)

Por otro nombre la dama de An-  
boto. Suele estar siete años en An-  
boto y otros siete en una cueva de  
Oiz. Dicen que es ella de Lazkano.  
Tenía un hermano; él, sacerdote.  
Siendo jovencita Mari Urraca, su  
madre muchas veces solía llevarla  
donde una mujer que vivía en una  
cueva los días de ir al templo. Aun-  
que el padre le decía:

—Mari, ve a la iglesia —la madre  
siempre llevaba a su hijita a la  
cueva.

Cuando el hermano sacerdote supo  
que no solía ir a la iglesia, la metió  
en un carro y atada la llevó al pór-  
tico. Mientras fué él a la sacristía  
por la estola, su hermana, ya perver-  
tida, se fué en el mismo carro al  
aire, despidiendo fuego y llamas.  
Posteriormente, ahí anda Mari Urra-  
ca, de Oiz a Anboto, de Anboto a Oiz.

Lo aprendí en Ochandiano ¿de Pedro  
Goikolea?

204. — EL GALLO DE MARZO Y LAS  
LAMIAS (AN)

Salió de casa el mes de marzo un  
estudiante a abrevar el ganado.  
Cuando, vuelto del abrevadero, llegó  
a casa, temió que de él se apoderasen  
las lamias, y, como sabía que en  
cantando el gallo no podían echarle  
la mano las lamias, dijo:



—*¡Martxoko oilaia, otoi! Balia dakidala.*

Oilafak ordu berean kantatu zue ta eilalamiak asare goñtan suturik erian zue:

—Madarikatuko alzaio oilar goñmia, goñengatik galdu baitut estudiante bilagoñia.

—Que venga en mi auxilio, ruego, el gallo de marzo.

En el mismo momento cantó el gallo y la lamia dijo, ardiendo en cólera:

—Ojalá se le maldiga la lengua a ese gallo, pues por él he perdido al estudiante de cabello rojo.

Aprendido en Aezkoa, en la aldehuela llamada Abaurrepe (Abaurrea Baja).

#### 205. — MATEO TXISTU



PAIZA zan gizon au ta gainera eizari amurátua. Bein, Meza ematen ari zalarik, zakuñak erbi bat aurretik zerabilten eta Eliza-ondotik igaro bear zutencaan apaiz eizazaleak beren zaunkak entzun zituen eta, soineko ornamentuak kentzeko ere betarik gabe, elizatik atera ta zakuñen atzetik lasterka asi zan. Geroztik or dabil nunbait Mateo Txistu, beti ibili ta ibili, bein ere gelditzen eztala. Bera urbil samar norabait doanean, iru zakuñen zaunka diferenteak (1) entzuten dira: batak, *au, au, au*; besteak, *i, i, i*; besteak, *gro, gro, gro*. Mateo Txistuk bere atzetik beti ekaitza uzten du ta berak dakañen ekaitzak amabost egun gutxienez irauten du.

Bera eztu iñork bein ere ikusi.

(1) Banak.

#### 205. — MATEO SILBO (G)

Este hombre era sacerdote y además cazador. En cierta ocasión, estando él celebrando misa, los perros traían una liebre por delante, y cuando tenían que pasar por junto a la iglesia el sacerdote cazador oyó sus ladridos y, sin tiempo ni para quitarse los ornamentos que tenía puestos, salió de la iglesia y empezó a correr tras los perros. Desde entonces, ahí, en alguna parte, anda Mateo Silbo, siempre andando, sin detenerse ni siquiera una vez. Cuando va él a alguna parte cerquita de uno, se oyen ladridos diferentes de los tres perros: el uno, *au, au, au*; el otro, *i, i, i*; el otro, *gro, gro, gro*. Mateo Silbo deja siempre una tempestad detrás de sí, y la tempestad traída por él dura por lo menos quince días.

A él jamás le ha visto nadie.

Mariana Ciriaco, de Amezketá.

## 206. — MEZAA TA URA



ESUKRISTO ta San Pedro alkañegaz ebilzan-yaiegun baten mezatxilinak entzun eudiezan.

—Pedro, goazan eliza ofetako mezatara —esan eban Jesukristok.

—Eliza ofetako abadea ezta abade ona ta goazan beste batera.

Badoaz auñera ta auñera. San Pedro egañi sutsuak yo ta auxe esan eban:

—Maisua, jegañiago naiz, egañiagoo!! Pozik edango neuke ura, balego.

—Oa or bêko trokara, ortxe aurkituko dok ituñia.

Yoan zan ta sube bat idoro eban, agotik ura eriola. Bildur bildur, baia edaten asi zan. Jesusek goitik:

—¿Da Pedro?

—Ur edeña, Maisua.

—Ituñia zelangoa dok?

—Subeari dario agotik ura.

—¿Zegaitik eztok orduan, abade dongea izanañen, mezarik entzun gura izan?

## 206. LA MISA Y EL AGUA (B)

Un día de fiesta en que Jesucristo y San Pedro andaban juntos, oyeron tocar las campanas para misa.

—Pedro, vamos a la misa de esa iglesia —dijo Jesucristo.

—El sacerdote de esa iglesia no es bueno, y vámonos a otra.

Iban caminando adelante, adelante, cuando San Pedro tuvo una sed horrorosa y dice:

—¡Maestro, tengo más sed, más sed...! Con gusto bebería agua, si hubiese.

—Vete a ese barranco que está ahí abajo y encontrarás ahí mismo la fuente.

Bajó y halló una culebra de cuya boca manaba agua. Temblando y con mucho miedo, pero empezó a beber. Jesucristo le dice desde arriba:

—¿Qué hay, Pedro?

—Hermosa agua, maestro.

—¿Cómo es la fuente?

—A la culebra le mana el agua por la boca.

—¿Por qué, entonces, por haber sido malo el sacerdote, no has querido oír misa?

Aprendido en Igorre (Yurre).



## 207. — MONDAÑAINGO LAMINAK



MONDAÑAIN Itsasu ta Ezpeleta-ondoko mendi handi bat da. Zilo handiak ditu Mondañainek. Laminak omenziran lehenago zilo hauetan. Laminazilo zuen izena ango grotak eta heietan urea pilaka zuten bérak. Eta yendeak yoaten ziran ure hura hartu nahiz. Soketan zinzilizka geritik estekatuak, behera yoaten ziran. Potoloak (hau zen Mondañaingo Laminen izena) murmur hasten ziren eta bertzeak iziturik hasten ziren oihuka eraten:

—Ai, tira nezak.

Istorio hau éran zuen gizonaren amak behin baino usuago ikusi zituen ure-bilha zoazen gizon hek.

Bein aphez bat yoan omenzen ostia santua bulañean zuela, beheraino yautsi zen eta han ziren-laminak éran zioten.

—Esker emok golkoan dukan ori.

Mondañain deritzaion mendi hortan minak badira ta hiru aldiz bederazka yoan ziren harat minak ateratzera eta hiruretan gizonak burutik nahasi ziren.

## 207.—LAS LAMIAS DE MONDARRAIN (L)

Mondarrain es un gran monte que está cerca de Itsasu y Ezpeleta. Mondarrain tiene grandes agujeros. Dicen que anteriormente había lamias en aquellos agujeros. A las cuevas aquéllas les designaban con el nombre de agujeros de lamias y allí tenían ellas a montones el oro. Y la gente solía ir con el deseo de coger aquel oro. Bajaban atando con la cuerda la cintura y pendientes de ella. Los *Potolo* (éste era el nombre de las lamias de Mondarrain) empezaban a mormojar y los otros, asustados, daban gritos diciendo:

—¡Ah! Estírame.

La madre del hombre que contó esta historia más de una vez vió a estos hombres que iban en busca de oro.

Dicen que una vez fué un sacerdote con una sagrada hostia en el seno, descendió hasta abajo y las lamias que allí había le dijeron:

—Da gracias a eso que tienes en el seno.

Existen minas en el monte denominado Mondarrain, y por tres veces han acudido separadamente a sacar el mineral y en las tres ocasiones perdieron los hombres el sentido.

Jean Iparragarre (1), de Ezpeleta.

(1) Hacia Bayona se dice así, en vez de Iparraguirre.

## 208. — MOTZAILA BATEN ZOĀA

**B**EIN motzaila (ijitanu) bat autortzera (konpesetara) yoan zan. Guzur ta abar here bañu zikina agertu eban. Bitartean abadeari zortzi ogerleko polito polito ostu eutsazan. Bera, ijitanu zanez, eñirik eñi ibiliaz bizi zala esan eutsanean, abadeak berari

—¿Ezer ostu dozu? —itandu eutsan.

—Bai, jauna, zortzi ogerleko.

—Bada yaubeari emon bear dautsazuz, ostean zerurik eztago.

—¿Gura dau berofek artu nire zor ori?

—Nik ez. Yaubeari emoiozu.

—¿Ta yaubeak gura ezpadau?

—Orduan euretzat gorde egizak. Esker aundiak emonda alde egin eban andik motzaileak.

## 209. — MUKIDUNA TA AZDUNA

**M**ARTIN (mukia beti zerion gizon bat) eta atza zuelako beti añaskatzen ari zen beste bat eñi batekoak ziren: eñi bateko ta adiskide. Bidez elkarrekin zoazin-egun batean apustu egin zuten: zein luzarago egin, bata mukia kendu gabe, añaskatu gabe bestea. Bide

## 208.—LA DEUDA DE UN GITANO (B)

Una vez fué a confesarse un gitano. Mal o bien iba confesando sus pecados y en el intervalo de su confesión le robó muy monamente ocho duros al confesor. Cuando le dijo que por su condición de gitano tenía que andar de pueblo en pueblo, preguntóle el sacerdote:

—¿Has robado algo?

—Sí, señor; ocho duros.

—Tendrás que devolverlos a su dueño; de lo contrario, no se puede ir al cielo.

—¿Quiere usted recibir mi deuda?

—Yo, no. Dáselos al mismo dueño.

—¿Y si el dueño no quiere recibirlos?

—Entonces guárdalos para ti.

Dándole muchas gracias se retiró el gitano del confesonario.

María Josefa Izpizua, de Gabika (Ereño).

## 209.—EL MOCOSO Y EL SARNOSO (AN)

Un hombre llamado Martín, a quien siempre manaba el moco, y otro que, por ser sarnoso, estaba de continuo rascándose, eran ambos del mismo pueblo: paisanos y amigos. Un día que iban caminando juntos concertaron una apuesta: quién estaría más tiempo, el uno sin quitarse el moco y el otro sin rascarse.



bat bařena bizkor zoazila bidekurutze batera iritsi ziren. Mukidunak azdunari galde egin zion:

—¿Non bařena yoan bear diagu?

—Egon asmatuarte —erantzun zion azdunak—. Naiz ortik naiz emendik (mukiak ezker-eskuin bi eskuz kenduz) gure asmoa beteko diagu.

—Berdin zaidak —esanta esku-gainak araskatu zituen besteak.

Yendo ligeros por un camino, llegaron a una encrucijada. El mocoso preguntó al sarnoso:

—¿Por dónde debemos ir?

—Aguarda a que lo acierte —contestóle el sarnoso—. O bien de allí, o bien de aquí (quitándose los mocos con ambas manos), cumpliremos nuestro propósito.

—Me es lo mismo —dijo el otro, y se rascó el dorso de las manos.

Andrés Astiz, de Goldaraz (Imotz).

## 210. — MUNAGURENGO LAMIÑAK



**B**IZKAIAN, Zornotzatik Gernikarako bidean, erdi-inguruan, baseřitxo polit baketsu bat datza, Gorozika, ta baseřitxo onetan, Zugaztietatik gorantz elizaldera goazala, muna baten gurenean edo gantxoan Munaguren deritxon etxe zabal bat agiri da. Osin bat dauko etxe onek beroni dautsala, Lamiñapozu deritxon osina. Pozu onek (osin onek) erdiertian kurtzegai bat agiri dau, zugatz txikitxiki bat, saratsa. Beronen adarretan sari lamiña bat edo beste egoten eiziran, uleak oraztu ta oraztu.

Inor osin aren ondora agertu ezker, sarats adarretatik uretan sartuta ezkutau (itsutu) egiten ziran lamiñak. Leixibaa bere adar aretan txite esegita eukiten eieben.

Bein Munagurengo andraren batek

## 210. — LAS LAMIAS DE MUNAGUREN (B)

En Bizkaya yace, a medio camino entre Amorebieta y Guernika, una linda, pacífica aldehuela llamada Gorozika, y en ella, según se va de Zugaztieta arriba hacia la iglesia, se ve en la cima de un ribazo una casa espaciosa llamada Munaguren (literalmente, Cima de Ribazo). Tiene esta casa, muy junto a la misma, un pozo llamado Pozo de Lamias (*Lamiñapozu*). Dicho pozo ostenta en medio un árbol muy pequeño, un sauce. En sus ramas solía estar con frecuencia y peinándose alguna que otra lamia.

Cuando alguien se acercaba al pozo, las lamias bajaban prontamente de las ramas del sauce al fondo del agua y allí se escondían. Solían ellas, según se dice, tener pendiente de aquellas ramas su ropa colada.

En cierta ocasión, una mujer de



VZ

Munagurengo lamiñiak



izara bat ostu euteen. Gabaz atea  
jo ta jo, oska ibilita gero,

Munagurengo atso banderáa,  
ekafi egidana nire ondra-izaráa

esan eban lamiña batek. Urango  
gau batzuetan bere bardin ate-otsak  
eta izara-eskea. Alakoren baten ore-  
gaitino egotzi (bota) eutsan izara ori  
etxeko andreak. Orduan lamiñak:

—Ezta etse onetan linoa faltako  
sekula sekularean.

211. — NAURI GAITZEKO ZER BAT



**B**EIN Aurizpeñin atso bat  
konfesonario batera ur-  
bildu ze, barnea ertsi-  
ertsia zuelarik. Bekatu-  
ñoren bat agertuz geroz  
bertze zerbait ere bazuela apezari  
éran zako, etzuela ordea garen ko-  
besatzeko indarrik, alkeizun andian  
baitze.

—Emaztekoa: bekatari andien-  
dako ere gure Jesus maiteak besoak  
beti xauzkin zabalik. Éran zan, bada,  
bekatu ori zer den.

—Korputz Kriste-egunean proze-  
siokoan amabi barako aize (1) bat  
ein nue.

—¿Ta nola naurtu al izan zindue  
zure lan gaitz gafen luzetasuna?

(1) Beste itz labur bat esan zuen,  
erderaz bezala bi izki dituena.

Munaguren les robó una sábana. A  
la noche dijo una lamia después de  
haber golpeado fuerte y repetida-  
mente la puerta:

Vieja osada de Munaguren,  
tráeme mi sábana honrada.

Se repitió esto de los ruidos y peti-  
ción de sábana varias noches segui-  
das. Por fin, sin embargo, la dueña  
de la casa le echó dicha sábana. En-  
tonces dijo la lamia:

—Nunca jamás faltará lino en esta  
casa.

Ignacio Larruzea, de Gorozika.

211. — UNA COSA DESMESURADA (BN)

En cierta ocasión se acercó una  
anciana al confesonario, en Espi-  
nal, teniendo la conciencia muy apu-  
rada. Después de manifestar algún  
pecadillo dijo al sacerdote que tenía  
también alguna otra cosa, pero que  
no tenía fuerzas para confesar, pues  
sentía gran vergüenza.

—Mujer, nuestro amado Jesús,  
aun para los más grandes pecadores,  
tiene siempre los brazos abiertos.  
Por consiguiente, di en qué consiste  
ese pecado.

—El día de Corpus Criste (*sic*)  
produje durante la procesión un  
viento (1) de doce varas.

—¿Y cómo pudiste medir la lon-  
gitud de aquella tu enorme obra?

(1) Dijo otra palabra corta que tiene  
dos sílabas como en castellano.

—¡Badakizu, yauna, nola ezartzen den amabi barako mise bat Perkaineneko atarian?

—Bai.

—Bada mise goñen bazter batean asi nue ta bertze bazterean akabatu.

## 212. — OLABEOÑA TA GARAGAÑA

**O**LABEOÑAK eñan zaun garagañari:

—Yi yaz bizioso eta basto; yiretako nausiak eslejitan dik aloñik obenena, antzatan yai obekiena; eta guziuareki sortu bēar baduk, ongariz onki berotu bēar yai; eta yaz kain basto maiak ezbaiyai ezaguntan. Yire estimazione guziua sotokoetan diok.

Garagañak eñespondatu zaun:

—Eta yi yaz guziuen uguntia, ñork ere nai ezyayeina. Yiretako ezdion ez preziorik, ez mesurarik. Sortan yaz erin bage, ungunēan ebastan yuanareki bizi yaz, kanpa bedatse guziuan onki bestitruk; ero yazan gisa, guziuez gain azkatruk. Larnēara eramaiten dun buriua utsik eta autza (agotza) eñautan airiarentako.

## 213. — ONTZA TA GUBUTZEA

Ezkuñan Elizako argiontzitik orioa zeinek ebasten zien igari ezin zutela aspaldi luzean bizi ziran. Lapur orien beñi yakiteko bat eliza bar-

—¿Ya sabéis, señor, cómo se pone una tela de doce varas en el portal de casa de Perkain?

—Sí.

—Pues la empecé en un extremo de esa tela y la terminé en el otro extremo.

Maximino Iziz, de Iribarren (Aezkoa).

## 212.—LA CIZAÑA Y LA CEBADA (R)

Dijo la cizaña a la cebada:

—Tú eres viciosa y ordinariota; para ti, el dueño escoge el mejor campo, te cuida de lo mejor, y, con todo, si has de nacer, te tienen que calentar bien con abonos, y eres tan zafia que la mesa no te conoce. Toda tu estimación está en la gente de la cuadra.

La cebada le respondió:

—Y tú eres aborrecida de todos, una a quien nadie tiene cariño. Para ti no hay ni precio ni medida. Naces sin que te siembren, vives de lo que robas a tu derredor, en toda la primavera te enorgulleces bien vestida; como eres loca, riñes con todos. A la era llevas la espiga vacía y pulverizas la paja para el aire.

Mariano Mendigacha, de Bidangoz.

## 213.—LA LECHUZA Y LA CRUZ (AN)

Desde hace tiempo vivían en Ezkurra sin poder averiguar quién robaba el aceite de la lámpara de la iglesia. Con el fin de saber quiénes



nean zelatean gelditu zen gau batez. Gaberdi-garaituan agertu zen oriolapufa, ontz zâr itsusi bat. Gure eizaria pozik zutitu zen eskopeta sorbaldaratuz. Ontza gurutze nagusian gelditu zen. Pusildunak bein ta beriz eskuaz gurutzeari keiñu egin zion, kentzeko; eta gainera apal-apal

—Alde, alde —esanez.

Gurutzea zirkinik egin gabe za-goelarik bunp Ezku'arak egin zuen eta ontza gorengo erlaxera yoan zen bitartean. Gurutze edeña zati-zati eginik lufera erori zen. Orduan gaiztagiña izaturik aldare-aurean belaunikatu zen eta itz auek esan zituen:

Gurutze santua: barkatu,  
zerotek ere obenak batuzu.  
Gizona kolerañ ikusi eta  
¿zertaz alde egin eztuzu?

#### 214. — ORBARAKO AKEÑA



ORBARAN aker bat zofiz bete zitzaie ta eñi guzia bildu zø. Akeña meatzen ai zela, fite ilen zela. Gala uste zute guziek.

Zentzu andiko gizon bat bazen Orbaran egun gaietan: Yoanes Iriarteko. Gari gertatzen zena adiarazi ta zer egin bear zen galde ein zakote. Ark eñan zue:

—Aker gori sar zazie bezko bat

eran esos ladrones, quedó uno dentro del templo una noche en acecho. A eso de la medianoche, apareció el ladrón de aceite, una lechuza vieja y fea. Nuestro cazador se irguió, satisfecho, poniendo al hombro la escopeta. La lechuza se posó en la cruz grande. El de la escopeta hizo señas con la mano una y otra vez a la cruz, para que se apartara, diciendo:

—Quítese, quítese.

La cruz permanecía sin moverse y el de Ezkurra disparó, y mientras la lechuza se fué a la cornisa superior, cayó la cruz al suelo hecha trizas. Entonces, asustado, el malhechor se arrodilló delante del altar y dijo estas palabras:

Santa Cruz: perdonad,  
también vos tenéis la culpa.  
Viendo al hombre colérico,  
¿cómo no os habéis retirado?

Justo Albizu, de Alkotz (Uizama).  
Véase «Abelzaina», de Cerquand, página 257.

#### 214. — EL CHIVO DE ORBARA (BN)

En Orbara se les llenó de piojos un chivo y se reunió todo el pueblo. (Notaron) que el chivo se enflaquecía, que pronto había de morir. Así lo creían todos. En aquellos días había en Orbara un hombre de gran juicio: Yoanes, el de Iriarte. A él dieron a conocer lo que pasaba y le preguntaron qué había de hacerse. Aquél dijo:

—Meted a ese chivo en una calde-

olio irakian. Gan ilen dire zofiak.

Sartu zute akeña galako bezkoan, aoz goiti gelditu ze, ortzak zuri zuri ageri zituela. Orduan Yoanes Iriartekok akeña botzik zela, iriz zegola erian zue. Ila ze aker gaixoa.

### 215. — OTSOA TA LERTXUNA

**O**TSO bati, gose andiz zakur zar baten aragi-ezurak jaten ari zela, eztañian ezur bat geratu zitzaion, ez bañura sartu, ez kanpora atera ezinik.

Norbait bear zuen estutasun artatik irten al izateko. Andik ufuti gabe artalde eder bat zebilen belaña jan ta jan eta otsoa laguntasun-eske urbidu zitzaion.

—Zuen arteko batek atera bezait ene eztañiko ezura jären bai aären!

Ardiak, otsoaren lenengo itzak entzunaz batera, ařapaladan igesi joan ziran.

Otsoak etzekian norengana jo. Iri-ondora joan zan, baina etzan azartu kale-artean sartzen. Alako batean lertxun ede bat ikusi zuen elizaren gain-gainean, anka bakar bat ageri zuela. Bera ikusita, o, o, o, así zitzaion deika otsoa.

Lertxuna, dei hura entzun zueñean, gorputza goratu, egoak zabaldu ta otsoaren inguruan batera ta

ra de aceite hirviendo. Allí morirán los piojos.

Metieron al chivo en una caldera así, quedó boca arriba, mostrando sus dientes muy blancos. Entonces dijo Yoanes el de Iriarte, que el chivo estaba contento, riéndose. El pobre chivo estaba muerto.

Martin Arotzarena, de Orbara (Aezkoa).

### 215. — EL LOBO Y LA GRULLA (G)

Estando un lobo comiendo con gran hambre carnes y huesos de un perro viejo, se le quedó un hueso en la garganta sin poder ni meterlo adentro ni sacarlo afuera.

Necesitaba de alguien para poder salir de aquel apuro. No lejos de allí andaba un hermoso rebaño de ovejas comiendo hierba y el lobo se les acercó pidiendo auxilio.

—Uno de entre vosotros arránqueme el hueso de mi garganta, por favor.

Las ovejas, en cuanto oyeron las primeras palabras del lobo, huyeron apresuradamente.

No sabía el lobo a quién acudir. Se fué junto al pueblo, pero no se atrevió a meterse entre calles. En una de éstas vió una hermosa grulla en lo más alto de la iglesia, mostrando una sola pata. Al verla empezó el lobo a llamarla, o, o, o.

La grulla, cuando oyó aquella llamada, elevó el cuerpo, extendió las alas y empezó a volar a un lado y



besteraegaz ibilten asi zan, eta biguñ biguñik ezer nai duk, otsokos galde egin zion.

—Ezur bat eztañan geratu zaidak eta ik-moto luze eder ori nire agoan zar zak, berealaxe ateratzeko. Aloger ona izango dek.

Lertxuna, bere ego edeñak ertaiz, gogo onez urbildu zitzaion. Otsoak zabal zabal zeukan agoa. Egazti biotz biguñak-bere mokoa eztañiragino sartu ta laxter ate razion abereztarari an zeukan ezurra.

—¿Alogertzat zer daukak nevi emateko! galde egin zion ongileak.

Lertxun, lertxun; ire bizia neronen ortz-artean iduki dek. Grauskada bat eman banik, ila intzan. ¿Ezalde alogera naikoa bizirik gelditzea?

Itz zakar auek entzun zituaneke, egoak zabaldu ta elizara-bidea artu zuen isil-isilik lertxun ongileak.

Ipuintxo au zein eritakoa dan eztañit.

## 216. — PERU AMUNDARAIN



QGEFTA bat urtekoa zala amari titia eskatzen omen zion. Iruña aldetik etoñi zan bein norbait bera ezagutzera. Goldean zebilen bera.

—¿Nun bizi da Peru Amundarain?

a otro junto al lobo; y muy dulcemente le preguntó:

—¿Qué quieres lobito?

—Se me ha quedado un hueso en la garganta y tú mete en mi boca ese hermoso pico, para extraerlo en seguida. Tendrás buena recompensa.

La grulla, bajando sus hermosas alas, se le acercó con buena voluntad. El lobo tenía muy abierta la boca. La compasiva ave metió su pico hasta la garganta y muy pronto extrajo al animalazo el hueso que allí tenía.

—¿Qué tienes para darme como recompensa? —le preguntó la bienhechora.

—Grulla, grulla: tu vida la has tenido entre mis dientes. Si te hubiera dado un mordisco, estabas ya muerta. ¿No es bastante recompensa quedarte viva?

En cuanto oyó estas palabras extendió sus alas y tomó camino de la iglesia la grulla bienhechora.

No sé de qué pueblo es este cuentecito.

## 216. — PEDRO AMUNDARAIN (G)

Contaba Pedro veintiún años y todavía le pedía teta a su madre. Desde Pamplona vino una vez un individuo a conocerle. El estaba ocupado en el arado.

—¿Dónde vive Pedro Amundarain?

Zurtenetik goldeari oratuta

—Arako etxe artan —erantzun zuen.

—¿Orduan zu zera Peru?

—Bai bat.

Iruñara eramán zuten zakur batekin boñokan egitera. Zaulak goratu ta belaun goñitan zegoan, zakura etofi zitzaionean. Peruk esku batekin aosapaitik oratu zion zakurari, bestearekin mutur-ezpainetatik.

—¿Zer egingo diot? —galde egin zuen.

—Nai dekana egiok.

Eta sar-ateratuta pitzatuaz zakura jaurtiki zuen. Zakur-jabeak orduan esan zuen:

—Madarika dakiola iri bulara eman ian amari.

Cogiendo el arado por la esteva, contestó:

—En aquella casa de allí.

—Entonces tú eres Pedro.

—Sí, uno.

Le llevaron a Pamplona para luchar con un perro. Cuando se le presentó el perro estaba Pedro, levantados los zaragüelles y enseñando las rodillas. Con una mano le asió al perro por el paladar y con la otra por los morros.

—¿Qué le haré? —preguntó.

—Hazle lo que quieras.

Hundió al perro con un mete y saca de la mano y le arrojó lejos de allí. El dueño del perro dijo entonces:

—Maldita sea la madre que te amamantó.

Manuel Antonio Arruebarrena, de Ataun.

## 217. — PINTAZALEAK

**B**I aragoar aupadaka ari ziren bein; zeinek ardo geiago edan, beste biri apustu egiteko gertu zeudela. Aupada auek bein ta beñiz entzun ta berengana irimirikari bi andreño atera ziren.

—Gu ere zaleño Yainkoak egin genituen ta tokitan zerate, gizonak.

Zurüt batak, zurüt besteak, amabosna pinta edan zituzten; lauren artean iruetan ogei. Aragoar bata

## 217.—AFICIONADOS A LA PINTA (AN)

Dos aragoneses se ocupaban una vez en lanzar desafíos: que estaban dispuestos a apostar a otros dos quién bebía más vino. Dos mujercitas, que una y otra vez oyeron estos desafíos, salieron a su encuentro, sonriendo burlescamente.

—También a nosotras nos ha hecho Dios algún tanto aficionadas, y ya podéis empezar, hombres.

El uno empinó y empinó el otro, bebieron quince pintas cada uno: sesenta entre los cuatro. Cuando uno



luíera erori zenean, bestea perdizka asi zen ibilten. Bi andreñoak, apustua irabazirik, atari-portzekoa eskatu zuten: beste pinta bana. Edaten ari zirela, galde egin zion batak besteari:

—¿Ongi gaude, Katalin?

—Oso poliki— besteak erantzun zuen.

Ta geroxeago oinen gainean yoan ziren etxera.

#### 218. — POŔU-KIRTENA

**B**ERGARAKO kondea, Oñati-aldean eizan ebilela, goseak eraginda, Leizargarateko etxe batera jan-eske sartuzan. Artoa baino zer janik ezegoan. Jan ta jan berak. Etxean umeak soil-soilik egozan. Kondeak:

—¿Poŕu kirten bat balego, arto geiago jan eragiteko...! Eta poŕu-kirten bat eskuetan artu zeban.

Umeak negafari emon eutsen.

—¿Zeri citen dotsazue negar?

—Aitak eta amak jo egingo abe, poŕukirten orék txibiztura-orde erabilten jítuek-eta.

de los aragoneses cayó a tierra, el otro empezó a andar tambaleando. Las dos mujercitas, después de ganar la apuesta, pidieron la propina: otra pinta para cada una. Estando bebiendo, una preguntó a la otra:

—¿Estamos bien, Catalinita?

—Muy bien —respondió la otra.

Y poco más tarde fueron a casa sobre sus pies.

Andrés Astiz, de Goldaratz (Imotz).

#### 218. — EL RABO DE PUERRO (B)

Andando de caza el conde de Bergara por los alrededores de Oñate, acosado por el hambre, entró en una casa de Leizargarate a pedir que le diesen de comer. No había más comida que borona. Solitos, muy solos, se encontraban los niños de la casa. Empezó el conde a comer borona y más borona, y sin duda para satisfacer más su apetito, dijo:

—¿Si hubiera un rabo de puerro para hacer comer más borona! Y cogió un rabo de puerro en las manos.

Empezaron los niños a llorar.

—¿Por qué lloráis? —les dijo.

—Porque te van a pegar el padre y la madre, pues de ese rabo de puerro se valen ellos en vez de jeringa.

Juan Urrutia, de Guellano (Leniz).

## 219. — PREDIKAGU BATIAN



AUN eñetor batek apetz-  
kupiaren letra bat hartu  
züzün behin, heñiari  
irakurtzekua. Igantian  
yoan züzün predikagiara  
eta irakurtzen hari zelarik, erori  
ziozün letra eta predikagiaren zilo  
hatetarik maiasturiaren emaziaren  
burura heltü züzün. Ordian anderiak  
izaturik uzker bat egin zuen eta heñi  
guzia eñiz asi zen. Aphezak ordian  
eñan zuen:

—Nik maiasturiari maiz eñaiten  
dia kozut zilo hori tapa dezala.

Maulako seme Jacques Pulitek eñana.

## 220. — SAGAR-BILA



ALTSATSUTIK Urdaina bide-  
an Otadiako ermita  
dago, Santo kristorena.  
Senar-emazte batzuk  
Altsatsun bizi ziran ume  
gaztetxo batekin. Au il zitzaien ta  
berau ilotzik besoetan zutela Santo  
Kristorengana fan ziran. Umetxo  
hura beñiz bizirik emateko eskatu  
zioten. Santo Kristoak orduan beso  
bat luzatuz tirtirikan bota zion  
umeari sagar bat, au esaten ziola.

—Joakin, yagi adi ta ar zak sa-  
gar ori.

Umea piztu ta sagar-bila asi zan.

## 219. — EN UN PÚLPITO (S)

Un señor párroco recibió una vez  
una carta del obispo, que había de  
leer al pueblo. El domingo fué al  
púlpito, y estando leyendo se le cayó  
la carta, y por un agujero del púl-  
pito fué a parar a la cabeza de la  
mujer del carpintero. Asustada en-  
tonces la mujer, soltó un cuesco, y  
todo el pueblo se echó a reír. En-  
tonces dijo el sacerdote:

—Yo le digo muchas veces al car-  
pintero que cubra ese agujero.

Referido por Santiago Pulit, hijo de  
Maulcon.

## 220.—EN BUSCA DE MANZANA (AN)

Hay una ermita del Santo Cristo  
de Otadia entre Urdiain y Alsasua.  
Vivían en Alsasua marido y mujer  
con un niño pequeño. Murió éste y  
los padres se encaminaron a la ermi-  
ta, llevando en brazos el cadáver.  
Pidiéronle le resucitaran al niño  
muerto. El Santo Cristo, alargando  
entonces el brazo, le echó al niño  
una manzana diciendo:

—Joaquín, levántate y coge esa  
manzana.

Resucitó el niño y empezó a bus-  
car la manzana.

Referido por un vecino de Alsasua.



## 221. — SAN MARTINEN TXÍZTUA (1)



EMENTARIA zan San Martin. Egunero zoakion sutegira neska zâr bat. Onen anaiak sutara aserez jaurti zeben. San Martinek txíztua jota, biztu zan neska zâr ori ta len baino edeâgo ta gazteago gelditu zan.

Auzoko batek, au jakinik,

—Neure emazte zatar au sutara jaurti bear doat —esan zeban eta jaurti ta ereta, senafak txíztua joâren, etzan biztu.

San Martingana jo zeban orduan alargunak. San Martinek biztu zeban au ere, baina len baizen zâr ta zatar atera zan sutatik. Orduan San Martinek gizonari

—Urengoan, eztakian gauzarik ezeik egin gura izan, besteak dakielata —esan eutsan.

## 222. — SAN PEDRO TA ESKRIBAUA

Eskribau batek, zeruko atarira elduta, dran dran yo eban atea.

—¿Nor da? —San Pedrok bañutik.

## 221.—EL SILBO DE SAN MARTÍN (B)

San Martín era herrero. Todos los días iba a su fragua una vieja solterona. Un día, los hermanos de San Martín la cogieron y la arrojaron encolerizados al fuego. Tocó el silbo San Martín y al instante resucitó la vieja, pero mucho más hermosa y joven que lo había sido cuando la arrojaron.

Sabedor un vecino de este caso, dijo:

—Yo también voy a arrojar al fuego a mi vieja y fea mujer.

La arrojó, y pronto quedó calcinada, y a pesar del silbo que tocaba su marido la infeliz mujer no resucitaba.

Acudió el viudo donde San Martín y éste la resucitó, pero con la misma vejez y fealdad de antes. Entonces, San Martín, dirigiéndose al marido, le dijo:

—No intentes otra vez hacer lo que no sepas, porque otros lo sepan y hagan.

Manuel Unanue, de ochenta y cuatro años, en Alzola de Elgoibar.

## 222.—SAN PEDRO Y EL ESCRIBANO(B)

Un escribano llegó a la puerta del Cielo y dió dos golpes: tras tras. Al momento contestó San Pedro por dentro:

—¿Quién es?

(1) *Txíztua* como voz isótona es sinónima de *trua*, la saliva; como voz ditona, es decir, cuando su última sílaba cae a la atonía, significa el silbo.

—Eskribaua nozu.

—Eskribaurik eztoigu bear emen.

—¡Afen! Zokondotxu bat ¡afen! zeure amari zeutsan maitetasuna gomuta dozula, zabaldu atea.

—Erdu bada, erdu bañura.

Adiskide-usaineko egin zanean eskribauak atezain andiari

—¿Noiztik ona zara zeu giltz oren yaube? —itandu eutsan.

—Mila ta seireun bat urte, or or, daroadaz atezaintzan.

—¿Eskritura bagarik egin zenuen atezain?

—Eskrituraren bat egitea gura etedok? ¡Ut! Kanpora emendik.

—Soy escribano.

—¿Escribano? Aquí no nos hacen falta escribanos.

—¡Por Dios! Un rinconcito, sí: un rinconcito, por la memoria de vuestra madre, abridme la puerta.

—Entra, pues, entra adentro...

Cuando el escribano le creyó algo amigo, le preguntó al gran portero:

—¿Desde cuándo sois poseedor de esas llaves?

—Sobre poco más o menos, hace mil seiscientos años que llevo en este oficio de portero.

—¿Y sin formalizar con alguna escritura os hicieron portero?

—¡Si querrás tú hacer alguna escritura! ¡Sus, largo de aquí, sal afuera!

María Josefa Izpizua, de Gabika.

### 223. — SAN PEDRO TA ERLEA



ESUKRISTO bere ikaslak lagun zituala, itxas-bazterean zear yoëan baten, txalupa bat galdu-gordean ekusen.

San Pedrok:

—Jauna —esan eutsan Maisuari—, an gizonak bañegañi itxasoan.

—Batgaitik guztiak galdu bear doek.

Uíengo aize-bolada batek yo ta tira bira egin eben. San Pedrok, a ikusita, ortiko ta emetikoak esaten murmur ziarduan.

### 223. — SAN PEDRO Y LA ABEJA (B)

Una vez que Jesucristo con sus discípulos se encaminaba por las orillas del mar, vieron una lancha a punto de naufragar.

—Señor —dijo San Pedro al Maestro—, mira cómo andan apurados aquellos hombres.

—Por uno, tienen que perderse todos.

A poco, un fuerte ventarrón hizo volcar a la lancha. Al ver esto empezó San Pedro a mormojear por lo bajo.



Gerotxoago erlakume bat artaburu batetik dingilizka ikusita,

—Pedro —esan eutsan Maisuak—, gordeik ori kolkoan.

Gorde eban San Pedrok. Badoaz, badoaz ta erle batek eztena sartu eutsan Pedrori. Bera geraka ta arttega asi zan yo bat eta yo bestea, erle-piloa banatuten.

—¿Zer dok, Pedro?

—Ba, jauna, eztenka asi dat bat eta...

—Len batgaitik besteak ito dirialako oiñoten asi aiz, ¿eta orain euk, erle batek eztena sartu daualako, guztiak il nai dozak?

#### 224. — SAN PEDROBEN URDAILA



GOSEAK zegoen San Pedro, Jesukristorekin kalean zear uri batean zebilela. Atzetxotik jarita urengo okintza bat zabalik ikusirik opil bat artu ta kolkoan gorde zuan. Jaten asten zaneke Jesukristok zerbait galdetzen zion ta San Pedrok lufera egotzi bear otondoa. Bein ta bi ta irugarrenean ala egotzi zituan opilkondo guztiak.

—Jauna, uritik irteeran kendu bezait urdaila, goseak nago-ta... —esan zion Maisuari.

Kendu ta sasi-gainean jari zuan urdaila. Bide piskat igarota,

Un poco más tarde se encontraron con una colmena que estaba pendiente de una mazorca.

—Pedro —le dice el Maestro—, guarda eso en tu seno.

San Pedro lo guardó. Iban andando, andando, cuando una abeja le metió el aguijón a San Pedro. Este empezó a inquietarse, molestarse y a golpear y matar a las abejas.

—¿Qué tienes, Pedro?

—Pues, Señor, como una me mete el aguijón...

—Antes, porque se han ahogado todos por uno, has murmurado, y ahora, porque una abeja te ha picado, ¿quieres matar a todas?

Francisco Urkiaga, de Murélagá.

#### 224. — EL ESTÓMAGO DE SAN PEDRO (G)

Éstaba de hambre San Pedro una vez que andaba con Jesucristo por la calle en una ciudad. Quedóse algo atrasado y viendo abierta una panadería, cogió una torta y la guardó en el seno. En cuanto empezaba a comerla, le preguntaba algo Jesucristo, y San Pedro se veía obligado a echar a tierra el mendrugo (que tenía en la boca). Una y dos y tres veces, así tuvo que echar todos los trozos de la torta.

—Señor —dijo él al Maestro—, al salir de la ciudad, quítame el estómago, pues estoy de hambre.

Se lo quitó y lo puso sobre un zarzal. Pasado un trozo del camino, dijo San Pedro:

—Nere sabela, nere belauna —esan zuan San Pedrok.

—¿Zer dek, Pedro?

—Aul nago ni, Jauna, ta lafi. Ezarri bezait beiz urdaila.

Ezarri zion.

